

GOIERRITARRA

2.500 aleko tirada • Udako Ale berezia.

124 p.k. Ordizia —Goierrialdeko Aldizkaria— dohain banatzen da

GOIERRITARRA HILABETEKARIA.

26. Zenbakia

92ko Uztaila




"
G
u
r
e
a
k
"

ezagutuz

- ❖ ERREPORTAIK: GUREAK, ATZERATU PSIKIKOEN LAN-MUNDUA EZAGUTUZ. KAZETARI ORDIZIAR BATEN ANDANTZAK HEGOAMERIKAN. SASIETA ZABORTEGI AMANKOMUNALAK URTEBETE ETA GEHIAGO BETE. LAZKAOKO MAIZPIDE EUSKALTEGIA, GOIERRI ETA E.H.-RA BEGIRA. EUSTAKIO MENDIZABAL TXIKIAREN HITZ ETENA. SEXU ARAZOAK ZERRAILAREN ESKUTIK.
- ❖ ELKARRIZKETAK: BUROKRAZIARIK EZ GAZTETXEAN. IñAKI LARRAÑAGA SOZIOLOGOAREKIN SOLASEAN. LAZKAOKO TALOEGILEEN SEKRETUAK. ARETO-FUTBOLEKO NESKA GOIERRITARREI. IDIAZABALGO TRIKITILARI JUERGISTAK.
- ❖ ZAHARRAK BERRI, INKESTA, OHIZKO SAILAK... ETA GEHIAGO!

PERIODIKOAK



asteroko
ARGIA

ARGIA: Industrialdea 1-2. Lasarte-Oria 20160.
Telefonoa: 943-371545 / Faxe: 943-361048



ARGIAREN HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT (astekaria eta urtekaria)

IZEN DEITURAK

HELBIDEA

TELEFONOA

HERRIA

PROBINTZIA

BANKU edo AURREZKI KUTXA

SUKURTSALA

KONTU KORRONTEAREN Zka.

SINADURA

Harpidetza Sariak: Hego Euskal Herria: 9.750 pzta. / Ipar Euskal Herria: 640 libera.
/ Estatu espainiarra: 9.750 pzta. / Beste atzerriak: 12.800 pzta. / Airez: 20.200 pzta.

ZugandiK GERTU

LIBURUAK
ALDIZKARIAK
KATALOGOAK
LIBURUXKAK
MERKATARITZAKO INPRIMAKIAK
BULEGO TRESNAK

Zure lan hori garairako GERTU

dei iezaiguzu GERTU gaude!
zuk behar zenuen INPRIMATEGIA

GERTU INPRIMATEGIA

Zubillaga Industrialdea, 9. 20560 OÑATI (Gipuzkoa) Tfnoa. (9) 43 78 33 09 Fax. (9) 43 78 33 09

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierrialdeko Aldizkaria

Udako Ale Berezia

26. zenbakia. 92.eko Uztaila. Debaldeko alea. Tirada: 2.500 ale 1.900 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak Kultur Elkartea. Dorre-etxea, behea. Tfna: 889612. 124 posta kutxa. Ordizia.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du. Era berean, Goierriko Udal askoren dirulaguntza jaso izan du.

Zuzendaria: Jon Mikel Arano.

Publizitate arduraduna eta laguntzailea: Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Tere Irastortza, Andoni Sarriegi, Jon Arano, Mikel Albisu,

Jon Imanol Iturrioz, Eurne Garmendia, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna eta Rosa Amundarain.

Ale honetako kolaboratzaileak: Dionisio Amundarain, Mikel Aramendi, Iñaki Murua "Maizpi", Xabier Gartzia, Jesus Munduate, "Zerraila", "Ateari", Xabier Mendiguren, Kexexo, Igor Eguren, Iñaki Erauskin, Alex Saldaña, Peio Joxe Aranburu, Ion Aldaondo, Jon Belarra, Ramon Ugalde, Jon Zabalegi, e.a.

Gure eskerronak: Gure "sponsorrei": publizitatea ematen diguten guztiei. Idiazabalgo AMPO Kooperatibari eta Aristrain Fundazioari beren dirulaguntzagatik. Goierriko Herrien Ekintza-ri, Goierriko Udal Ordezkariei, "Zure-Argazki" eta "Fo-

toetxe"eri, "Egunkaria", Lankide Aurrezkia, "Gureak", "Argia"ri. Era batera edo bestera lagundu nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartu nahi duzuenoi.

Fotokonposaketa, maketazioa eta inprimaketa: GERTU KOOP

E. (Zubillaga. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua:SS-926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Zein da aldizkari irakurriena Goierri? Zure publizitatea 2.500 txokotara iristea nahi baduzu, dei egiguzu. Izena emango dizu GOIERRITARRAn iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa

Dei 889612 telefonora.



Irakurleari:

Aide eta zurrumbilo berriak dabilta GOIERRITARRAren ingurumarian. Joxe Aranzabalen txosten bat dago tartean (ez dira guztiak egi-xuxenak horkoak, are gutxiago periodikuetaoak), baina egia da GHEK eta Goierriko Udalek Aldizkari hau guztiz eraberritzeko proiektu jator bat dutela.

Ea zertan gelditzen den, izango al da gauza onik irakurlea zerbitzeko jaio zen GOIERRITARRArentzat! Geure berririk izango duzue; zeuenak, zeuenak behar ditugu! Uda on-ona pasa bitartean!

Ideia jatorrenek ere bultzada behar izaten dute.

Udal arduradunek lagundu behar diote

GOIERRITARRA ri,

GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen-Deiturak:

Helbidea:

HerriaTlf.....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali.

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER

AVICOLA ERREKALDE

OILASKO GORRIAK

Kalitatezko oilaskoa gustatzen zaizu?

Baina markako oilaskoa!

PROBA ITZAZU!

Hegazki-granja ERREKALDEn dauzkagu. Gorri normalak, lepo soilak, adin ezberdinekoak.

GRANJA SALMENTA.
BANAKETA EUSKAL HERRI OSOAN
Tel. 80 61 98 - LEGORRETA



GAT 1.025

THINDOKI, S.A.

ZURE UDAKO NAHIA ESKAINTZEKO GAUDE

Irteerak hegazkinez

ADIN GUZTIENTZAKO IBILBIDEAK

Asia txikia 15 egun	119.900 pezeta
Egipto, Sinai, Jordania	136.000 pezeta
Egipto, Nilon zehar kruzeroa 12 egun	99.500 pezeta
Egipto zaharra, Nilon zehar kruzeroa 15 egun	110.900 pezeta
Egipto kruzeroa, Israel 18 egun	138.900 pezeta
Kenia osoa 15 egun	221.300 pezeta
India, Nepal 21 egun	208.500 pezeta
India, Sri Lanka 22 egun	247.000 pezeta
Tailandia 15 egun	159.700 pezeta
Singapur, Malasia, Tailandia 15 egun	204.900 pezeta
Txina zaharra 19 egun	222.900 pezeta
Txina handia 22 egun	249.000 pezeta
Txina, Tibet, Nepal 24 egun	298.000 pezeta
Txina, zetaren ibilbidea 22 egun	298.000 pezeta
New York 8 egun	112.900 pezeta
Estatu Batuak, Kanada 15 egun	180.000 pezeta
Estatu Batuak, kostalde batetik bestera 22 egun	269.900 pezeta
Mexiko, New York 15 egun	209.000 pezeta
Mexiko zirkuitu handia, New York 22 egun	248.600 pezeta
Mexiko, Guatemala 22 egun	268.900 pezeta
Habana, Mexiko 15 egun	198.400 pezeta
Kuba, Cancun, Yucatan 15 egun	169.800 pezeta
Kuba, Varadero 15 egun	151.800 pezeta
Kubako erritmoa 15 egun	165.800 pezeta

Urdaneta, 11 behea

Tel. 88 72 00

ORDIZIA



Suskrribatu zaitez!

GAUR EDO BIHARKO
KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA

88 96 12

*Irakurri
eta
zabalitza
Goierritarra*

MAKINERIA ERAKUSKETA
HORNIKUNTZA INDUSTRIAL ETA
EGUR BILTEGIA

EGURRA, S.L.

Jose M. Iturrioz, z/g.
Telefonoa: 88 06 21
Fax. 88 06 21
20200 BEASAIN

C-N 1
Telefonoa: 88 29 44
OLABERRIA

HIGIENEC

Gurutz Ruiz de Azua

LEHORREKO ETA BUSTIKO
GARBIKETA BAKTERIOLOGIKOA

Urdaneta, 52 - Tel. 16 14 48 • 20240 ORDIZIA

ALOSKA

Edergintza-Usaindegia

Domingo Unanue Plaza,2
20240 ORDIZIA
Tel. 88 24 10



MARRAK
IDOIA - KARMELE
ESTILISTAK

Jleapaindegia

Foru, 1 - Tfnoa: 88 89 34

20200 BEASAIN



Lana

✓ **20 urtetako neska** euskaldunak haurrak zainduko lituzke. Dei goizez edo arratsalde (9etatik 10etara) 883328 telefonora.

✓ **17 urteko bi ikaslek** udako hilabeteotan edozein lan egingo lukete. Tfnoak.: 889475/884434.

✓ **Neska euskaldun batek** etxekolana edo umezaintza egingo luke. Tel.: 886790, Izaskungatik galde.

Salerosketak

✓ **6 ahuntz salgai**, beren 9 antxumeekin, eta bi aker: Tel.: 884870.

✓ **Ford Fiesta** bat salgai (SS-O). Tel.: 882082.

✓ **"Hemen" astekariaren** 145. eta 198. aleak lortu nahi ditu "Mendu" Kultur Elkartek bilduma osatzeko. "Anaitasuna" eta "Argia" aldizkariaren ale solteak eskuragarri dauzkate Ategorrieta Hiribidea, 23-1. eskubian. Tlf.: 271713.

Etxebizitzak

✓ **Etxebizitza salgai** Ordiziako Urdaneta kalean: 97 m2. bi bainu-gela, gela guztiak egutera aldera, ia guztiz jantzia, ganbara du. Garajea aukeran. 889612, Ramon.

✓ **Lazkaon edo Beasainen**, pisu jantzi baten beharrean gaude. Interesatuak dei 884666, Manuel.

✓ **Pisua eta baratza** salgai Idiazabalen, Arimasagasti auzoan: 886693.

✓ **Ordizian, Kale-Berrin**, etxebizitza berritua salgai. Telf.: 888531. Ana.

Agurrak

AEK-JIRAK jo du

Goierriin hordago

euskal giroa piztu

nahiean zeharo

egin behar hamaika

afari gehiago

baskoak euskalduntzen

lan zaila baitago

Sukaldaritza Ikastaroa Legorretan

Sukaldaritza ikastaroa antolatu du Legorretako Udaleko Kultura Batzordeak irailaren 1etik 29ra bitartean. Ikastaro honetan parte hartu nahi duenak Udaletxeko bulegoetan eman behar du izena uztailaren 22a bitartean.

Ordiziako Jaien egitaraua

Uztailak 18a eta 19: Haurren egunak.

23a, osteguna: 19etan, Aitor Furundarenaren esku-soinu kontzertua Barrenan. 10,30etan, pelikula botako du Gazte Asanbladak.

24a, ostirala: 12etan, kanpai-jotzea, Jaien hasiera ofiziala; 12,15etan buruhaundi eta erraldoiak; 16,30etan Kuadrilen arteko euskal kirolak; 20etan, Flikto & Aermovil magia emanaldia; 21,30etan ohizko Danborrada; ondoren Dantzaldia: Oria txaranga; 23,30 Bozeo Jaialdi Handia.

25a, larunbata: 7,30etan Iruñeako medikuntza-tunaren eresia; 9etan Profesionalen Nazioarteko LXIX Villafranca Txirrindu-Proba; 12etatik 14,30etara, kotxe zaharren erakusketa Barandiaran plazan; 13,30etan, txirrindu probaren amaiera eta nafar joten saioa; 18,30etan, larruzko pilotaz pala-partiduak; 18,30etan haur antzerkia plazan; 19,30etan musika: Oria Txaranga; 20,00etan magia kaleetan zehar; 21,30etan, kalejira; 23etan Potrotaio eta Reincidentes rock-taldeak; 11,30etatik, 3,30etara

dantzaldia; 11,30etatik goizaldera, mozzorro-dantzaldia Anker-en eskutik.

26a, igandea, Santana: Ohizko goizaldeko danborrada eta txokolate jatea eta txistularien goizeresia ondoren; 9etan kalejira; 11etan, Parrokian Meza Nagusia Udalak eta Abesbatzak parte hartuz; 13etan Irungo Musika Bandaren kontzertua; 16etatik 18etara txirrindu-gimkana eta hortik aurrera eskuzko pilota partiduak; 18,30etatik aurrera haur-ikuskizuna, kale-antzerkia, musika animazioa, magia... 10,30etan Folk dantza-saioa eta 11,30etatik aurrera Dantzaldia Plaza Nagusian eta dantzaldia pilotalekuan, Drindots-ekin.

27a, astelehena, Koadrilen eguna: 12etan ohizko Santanazaleen Esku-Dantza Plazan; segidan, koadrilen irteera; 21,0etan, Kalejira; 23etan Rock jaialdia Piztiak eta E.H.Sukarrarekin; 11,30etatik aurrera bi dantzaldi, Plazan Iruña Ban Orkestra/Koxkola Txaranga eta pilotalekuan Izadi.

Ordizia-Beasaingo goardiako farmaziak

Uztailak: 15:Jauregi; 16: Lournaga; 17: Cuesta; 18-19:Atorrasagasti; 20: Arriola; 21: Urbizu; 22: Atorrasagasti; 23: Azpilikueta; 24: Jauregi; 25-26: Urbizu; 27: Lournaga; 28: Cuesta; 29: Arriola; 30: Urbizu; 31:

Atorrasagasti; **Abuztuak:** 1-2: Jauregi; 3: Azpilikueta. 4: Jauregi; 5: Lournaga; 6: Cuesta; 7: Arriola; 8-9: Azpilikueta; 10: Urbizu; 11: Atorrasagasti; 12: Azpilikueta; 13: Jauregi; 14-15-16: Lournaga.

Kirolen egoera Gipuzkoan

Kirolaren egoera herrialde batenaren ispilutzat jotzen du sarri eta hau honela izanik ezin esango da Gipuzkoakoa ona denik. Azterketa arin bat egiten badugu, kon-turatuko gara atletismoa, oinarritzko kirola izanik eta ki-rol-erregea deitua, ez dela sekulan hain baxu egon. Hor markek agintzen dute eta ez dago tranpa egiterik. Saskibaloian, joan ziren Gaskaren denborak. Igerike-tan, Harri Garmendiarekin erretiratu zen igerilari hobe-rena. Eskubaloian, Bidasoa dago, baina gehienbat kanpoko jokalariz hornitua. Txirrindularitzan, zaletasun haundia egonik, ez dago talde profesional bat ere eta langabeziko txirrindulari multzoaz aparte, atzetik datoz beste zenbait, etorkizun ilunaren adierazpen gisa. Fut-bolearen bertan, Realak ongi badoa ere, hortarako hiru at-zerretar hartu beharra izan duela hartu behar da kon-tuan eta herrietako taldeak estutasun larriak jasaten di-tuztela bai diru aldetik eta baita ere entrenatzaile ego-kiak moldatzeko. Pilota arloan, zer esanik ez. Ken gaurko egunez pilotari naparrak eta ea zer geratzen den. Galdetu behar Duathlon eta Triatlhonean dabilta-nei zer nolako laguntzak dituzten inondik. E.a., e.a.. Garbi dago ba, azken urteetan eraman den kirol politi-ka, oso txarra izan dela, frontoi eta kiroldegien erai-kuntza baina derrigorrezkoa den giza lana kontuan har-tu gabe. Orain bertan, hor doaz milaka milioi Anoeta Stadium erraldoian eta bitartean, eskoletan ez dago ki-rol irakasle berezirik. Uste dut badela garaia arduradu-nei bere gestio txarraren erantzukizuna eskatzekoa.

Joxe Jabier Iraeta (Zaldibia)

"Alkartasuna" Lizeoa eta Buesa

(Alkartasuna Lizeoak Udaletxean Buesa jaunaren zesea es-katuz aurkezturiko mozioa onartua)

Buesa jaunak, euskarari buruz, beronen sustapenaz, garapen eta normalkuntzat, ikastolez,... jaurtiki dituen baieztapenak, euskal kultur ondarearekiko sentsibiltate ezaren lekuko dira. Arduragabekeria hauek bitarteko Alkartasuna Lizeoko Gestio Batzordeak beronen zesea Ardantz Lehenakariari eskatzea erabaki zuen eta baita Udalean era bereko mozio bat aurkeztea ere. Ho-ri horrela 1992ko Maiatzaren 28ko Udal plenoak aipa-turiko mozio hori onartu egn zuen.

"Alkartasuna" Lizeoa (Beasain)

• Kolaborazioa

JENIOZ BIZIAK ETA
TAMAINUZ TXIKIAK,

Pottokak Aralarren

Bertako aberea dugu zaldia Euskal Herrian eta beste zen-bait arloetan bezala, hontan ere berezia da gure lurra. Pottoka izango da gizaldiz gizaldi geure zelai-mendie-tan ibilitakoa eta badirudi euskaldun gizakiarekin emigrazio eta inmigrazio alorrean paralelismo bat ezagutu due-na.

Genioz bizia eta tamainuz txikia, Amerikara eraman ohi zuten Pottoka behorra, haruntzkaldean zaldi andalu-zekin gurutzatu eta indioen pelikule-tan ikusten dugun zimarro mota sor-tuz. Balentzia aldera eramaten omen zituzten, laranjaondoetan lan egiteko egokiak zirenez, eta baita ere meate-gietako karroak eramateko erabili. Bainan errekonbertsioa heldu zen zal-dien mundura eta bere balioa, haragi-tarako murriztua geratu. Puntu hontara heldu ezker, ganadu mota haundia-goak bazirela konturatu ziren ganadu zaleek eta haietara jo, pottoken kalte-tan. Honela, Pottoken gizaldietan erbi-litako eremuetaz jabetu zen zaldi arrotza.

Bainan mundua bueltaka dabil eta di-rua izan bazen Aralarren Pottoken et-saia, bera izan daiteke itzulera bultzatu-ko duena. Izan ere, badirudi zaldi ki-roletako oso egokia dela gure Pottoka, txikia bainan bizkorra, salto ere ongi



Orain Aralarren dabilen Pottoka bakarrenetakoa.

egiten duena. Hortaz, eta Iparraldean badakite aspaldian honen berri, ekita-ziorako enplegu aparta dute Pottokak, batez ere kirol mota hartan haurrak ikasten hasteko (Zizurkilen ere bada-biltza, bestalde).

Zer esanik ez dago haragitarako behor batek salmenta garaian 10.000 duro ematen baditu eta Pottoka batek hiru aldiz gehiago, aurki hasi daitezkeela ganadu zaleek berriro ere Pottoken bi-dea jorratzen.

Adibide ximple gisa, hau jarri daiteke: zakurrak hazten dituztenek, arraza be-rezietarako dedikatzen direla noski eta ez edozein moetakotara.

Arrazoi hontatik aparte, Pottoka jato-rriz bertakoa izanik eta ikusteko askoz po-litagoa, ekologi aldetik ere badirudi Diputazioak nola edo hala bultzatu be-har lukeela Pottoken errekupe-aketa Aralarren, basauntzena egin duen be-zala eta ez legoke gaizki martxan da-goan Aralarreko plan orokorrean gai hau kontuan hartzea.

Ateari (Zaldibia)

A Z E B I F L A X !

("CAF"):

O H A R R A

Bere seme [redacted], Ekonomatoko langilea eta bere suhi [redacted] Taillerreko Maisuaren eskariz, jakin erazten dugu [redacted] Jn hil dela (g.b.) eta hilketa elizkizunak GAUR ASTEAZKENA hilak 29 arratsaldeko 6etan Beasaingo Parrokian egingo direla.

Beasainen 1992 [redacted] 29an.



Zer daukazu esateko?



UDARAKO EUZKIA.

Amaia Martinez,
25 urte.

Nik oain arte ezte euzkitio babesteko kremaik eabili. Euzkie artu aurretio ez beintzat. Ta oain'e berdin segittuko det nik. Oi bai, euzkie artuta geo, gorputza krema batekin igurtzitzen det, eta emendik aurea oixe bea ingo det. Ez-tauket nere oitturaik aldatzeko asmoik euzkie sortzen ai dan prolemak diela-ta.



SEGURA IRRATIA.

Haritz Aldasoro,
17 urte, ikaslea.

Ez dut asko entzuten. Normalean, aste-bukaeretan-eta. Estudiatzeko irratia jartzen dut, eta atsegina egiten zait. Programen artean bertako musika alaia erabiltzea asko gustatzen zait, eta kanpoko musika ezagutzeko aukera ematen didate, Rocka, Heavya, eta abar.



SEGURA IRRATIA

Idoia Senar,
16 urte,
ikaslea.

Ondo dago, baina diskografia berriku dezatela, bestela museo bat bilakatuko bait da. Ingleseko pronuntziakioa hobetuko balute...! Gehien gustatzen zaidan programa, "Vas a alucinar" da.



GOIERRIKO AZKEN KOARTELA.

Antonio Irastorza, 46 urte,
dendaria.

Nik uste diat alderdi politiko gehienek definiturik zauzkatekela beren iritziak horri buruz. Zibilen koartel horiek, gure herriarekiko errepresioa suposatzen diate. Lekuz aldatzea, errepliege/despliegak, efikazia eta estrategia horiekin ez gaudek ados eta "joan daitezela" eslogana oraindik bizirik dagoela uste diat.

LOINAZ Taberna — Jatetxea


BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



**Kirol jantzieta
espezialistak**

kimi kirolak



Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa: 88 89 53 ARAMA



JATETXEA

Tf 885255

DONOSTIA

ALTZAGA

Itzazondo Ordizia

GASTEIZ

Jatetxea



Gudarien Etorbidea - Tel. 88 39 60
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



SEGURO TALDEA
ZURICH-VITA-HISPANIA

GURUTZ BARANDIARAN IRASTORZA

ESTEBAN LASA, 7-1⁰C Tfnoa: 88 88 92
20200 Beasain (Gipuzkoa) Faxa: 88 88 92

Ba al dakizu...?

GIZARTEA

EZKIO-Itsaso, Gabiri, Ormaiztegi, Urretxu eta Zumarragako zenbait baserriarrek bi elkarte osatu dituzte, baita zerrategi bat eraikitze eta makineria erabiltzeko beste bat. Baserriaren egoera txarra dela, esnearen igotzea eta Europako inportazioei fredua jartzea bezain inportantea da, aidanez, eguneroko arazoei aurre egitea, eta horrexegatik asmatu dute Goierri Garraio baserriarrek auzolan berria.

EUSKADIKO Karlista Alderdiak museo bat egokitu nahi du bere ondare historikoa erakusteko Tolosan. Ondare horretan zenbait Goierriko pieza daude tartean: Carlos Villak Gipuzkoako Foruak Ordizian zinpetu zitueneko bandera eta Zumalakarregiren zenbait gauza.

ATAUNGO Gabillene etxearen egoera txarra gehiago luzatu ezinik, bere jabegoa dute+n Arreba Karmelitek eta Eleiz Parrokiaren bidez eraberritu nahi da.

AIPATU HERRIKO Dionisio Galparsorok (PNV) zinegotzitzat utzi du. Beste alde batetik, San Martin auzoko jaiak ekainetik azarora aldatzea erabaki da Udaletxean.

ORDIZIAKO Alkatea (Juanbi Erasquin) asteroko azoka indartzearen alde dago, buru-belarri. Bestalde, "Gazteluzar" etxearekin gertatu den bezalako zerbait (aurrena berrabildu egin behar zen eta azkenean suntsitu egin da monumentu historiko-artistiko hori) berriro ez dela gertatuko espero du.

"**BEASAIN** Hausnartzen Lehen Topaketak" antolatu berri ditu Beasaingo Herri Batasunak, herri horretako azterketa bat egin eta etorkizunerako ekarpenak ikertu eta bideratzeko. Horretarako hitzaldi sorta bat eman

ziren. Industria desmantelamenduari zegokionean, bailadako enplegu fijoak ikeragarri behar dira doan konklusiora iristen ziren. Kulturari zegokionean, Mikel Zaldüak (Kultur zinegotziak) herriko kultur azpiegiturak hobetzeko premia onartzen zuen; dantzataldeak haurren kuotetatik bizi direla zioten eta kultur ekitaldiarako herritarren parte hartzea eta borondatea zalantzan jartzen zen. Azken hitzaldian, drogomenpekotasunaren arazoaz kezkatutik agertu ziren herritar ugari. Topaketa hauek bete dituzte markatutako helburuak, dirudienez.

CAFÉK 561 milioiko irabaziak sortu ditu urteko lehen lau hilabeteetan

MAIATZE bukaerako kaskabarrak gehien kalteturikoak izan dira Gabiria, Ormaiztegi eta Ezkioko baserriarrek. Azken eurte eta uholdeek ere ingurualde horretan egin dituzte txikizirik handienak.

HIRUREHUN ikaslelik gora izan ditu aurten Goierriko "Goiztiri-Aek" euskaltegiak.

"**GESTO por la Paz**"ek bezala "Gernika Batzorde"koak bisitatu eta zeharkatu dute Goierri, oinez nahiz txirrinduz.

ZUMARRAGAKO "Kaixo" Udal aldizkaritik aterea: Amezketan herri euskaldun petora euskaraz ez dakien medikua destinatu dute berriki. "Herri honetako jendea zibilizatu-gabe dago, jende atzeratua da, ez dakit erdaraz..." bezalakoak esan omen ditu.



BEASAINGO Porterriko Bizilagun Elkarteak positibotzat jo ditu Udalarekin eukitako harremanak. Bestalde, auzo horretako "Beti Bizi" Elkarteak Segundo Dorronso-ro parrokoari zintzilikatu dio "Urrezko Barea", 25 urteko lana eskertu asmoz.

ORDIZIAKO Industrialdea %60an okupatua izan da bakarrik, eraiki zenetik. Kezagarria da bere promotore-entzat, adierazi dutenez.

EKAINAREN 7an, "Mendia berez garbia" garbitasun-kanpainak emaitza onik izan zuen Idiazabal. Makina bat zabor jaso ziren Añabason, baina ez guzti-guztiak. Mendiak ez zikintzeko kontzientzia sendoago bat behar dugu oraindik.

"**GOIERRIKO** Herrien Ekintza"k aurrera daraman Goierri 2005 Plangintza Estrategikoa kritikatu egin dute berau elaboratzen aritu bide diren zenbaitek, "inor ordezkatzeko ez duelako" eta Udalak albora uzten omen baititu.

ORDIZIAKO Jakintza Ikastolak Buesaren aurkako firma ugari bildu ditu. Adierazi dutenez, "Gobernu berria sortu zenetik Hezkuntza Sailarekin arazoak besterik ez ditugu izan eta badirudi Buesaren helburua ikasto-

Z•M

Cipuzkoako Foru Aldundia
MUSEO•ZUMALAKARREGI•MUSEOA
Ormaiztegi • Gipuzkoa
Diputación Foral de Gipuzkoa

Iriarte Erdikoa Etxea
20016 Ormaiztegi- Gipuzkoa.
Tfnoa.: 943-88 99 00
Faxa: 943- 88 01 38

Bisita ordutegia:
Asteartetan: 15etatik 19etara
asteazkena, osteguna eta ostiralean:
10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.
larunbatetan:
10,30etatik 14,30etara, eta 15,30etatik
18,30etara.



ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa

• **LEIHOAK, ATEAK ETA ABAR**
• **ESKAILERAK NEURRITARA**



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

lak suntsitzea dela". Buesak ez ditu betetzen lehendik hartutako konpromezuak eta lkastola horrek 50 milioi-ko zuloa dauka horrenbestez. lkastolak ez ezik euskaltzale guztiak egon beharko genuke haserre Buesaren adierazpenekin, beraien ustez.

RAFA Arizmendi, Ordiziako "D.V."ko kronikaegilea tententzioso samarra agertu da GOIERRITARRAri buruz Joxe Aranzabalek eginiko txostenaren bere irakurketa partikularra argitaratzeko orduan. Aldizkari honek ez dio, sekula, inori aterik itxi. Bilduma errepasatzea besterik ez dago. Dena dela, hiru urte zai egon ondoren, Proiektu (diskutigarria edo) bat dute Goierriko Udalek. GOIERRITARRA berritzea Aprobaturko al da, leiho berri gehiago irekiko al ditugu denon artean Goierri eta goierriarren mesedetan. Frakasurik ez, hau garai-pena da denontzat. Elkar zoriontzeko moduan gaude!



CAF Fabrika bandia (Lazkao Beasain)

KULTURA

"GOIERRIKO Euskal Eskola" Kultur Elkarteak eta Maizpide Euskaltegiak iazko udazkenean antolatutako 3. Gerriko Ikerlan-Sariketara 3 lan aurkeztu ziren. Tartean Pilartxo Etxeberria zaldibitarra (Filologian Dokorea) zuen epaimahaiak 1. saria hutsik uztea eta 2. saria "Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)" lanari ematea erabaki du. Egileak: Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezola (Maizpide Euskaltegi zuzendaria eta langileak). 3.a, berriz, "Goierriko biztanleria (18660-86) lanari. Egilea: Arkaitz Arruabarrena beasaindar gaztea. Sariai ekainaren 12an banatu ziren Lazkaoko Udaletxean.

ORDIZIAKO "Oroith-Txiki" Abesbatzak Gasteizko Habaneren Lehiaketako lehen saria ekarri du.

Tolosako Sagardo Lehiaketan, "San Juan" lehendabiziko saria eraman du Legorretako "Aulia" sagardotegi Jon Inazio Etxeberriak. Zorionak!

JABIER Arrillaga 42 urtetako zaraustar kitarjole eta kantaria ezaguna egiten ari zaigu bazterrotan. Han eta hemen kantatzeari utzi gabe kitarra-klaseak ematen ditu eta maiatzaren bukaeran kafe-kontzertu emandaldi bat eskaini zuen Ordiziako Kultur Etxean.

BERREHUN bat lagun bildu ziren Ormaiztegin Paskual Larrañaga txistulari eta musikariari eskainitako omenaldian

BEASAINGO hamaika emakumezko jubilatatu antzeztan has berriak dira Euripidesen "Troiarak" obra, entsaio-etan zazpi hilabete aritu ondoren.

HERRI bereko "Bazan garaie" aspaldidaniko koadrila eta Garrido artisaua izan ziren omenduak jaietan. "Egunkaria" bertako tabernei eman zien "Buruhaundiaren Saria", "atzerriko musika besterik ez dutelako jartzen", festetan ateratako eranskinean.

KALEAN dago jadanik Ezkio-Itsasoko lehen aldizkari herritarra. "Eup!" izena du eta hiru ezaugarri ditu: herritarra, zabala eta euskalduna. Bertan azaltzen diren zenbait datu, ordea ez dira pozgarriak: beherakada larria suertatu da bertan biztanleei dagokionez. Baina hori joer orokorra da, beheraka doaz, Mutiloa, Ataun, Lazkao Itsasondo,...

ALDIZKARI honen azken zenbakiaren azalean eredu-is-pilutza atera zen pertsonari barka biezagula eskatzen diogu publikoki. Gure baldintza eskasak, presak, e.a. eraginda, "Habe" aldizkaritik hartu eta gurean zeharrraldatu genuen bere argazkia, saiatu arren, eskura ezer ez genuenez. Gure desenkusak kalteren bat sortu bagenio.

ATAUNGO liburutegian daude ataundarrentzat propio egindako bi urtekari. Bata herri horri buruz argitaratu den guztia azkenaldian eta bestea Joxemiel Barandiarani buruz.

IA kultur aldizkari xume izatetik informazio aldizkari sendoa izatera pasatzen den gure GOIERRITARRA. Hamabostekari- Astekaria, langile kontratadunekin, herrietako berriekin, milioietako aurrekontu eta makineriekin, Goierriko Udalen partehartzearekin, hori sinestu nahi dugu. Aberastasun hori sortu nahi genuke. Ea guztiz eraberritzen dugun hau eta berri labor gehiago ikusten dituzun datorren kurtsoan orrialde hauetan.



liburudenda

• Diskak • Liburuak • Jostailu didaktikoak • Eskola materiala • Bulego materiala

Elosegi 16 • Tfnoa.: 88 65 00 - Fax: 88 79 71
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Serragi TAPIZERIA

TAPIZERIA - DEKORAZIOA

*Jai Zoriontuak
opa dizue*

Goiherri, 12
Telefona: 88 31 53

ORDIZIA



ALTZAGARATEKO JATETXEA

- Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaiak, e.a. ospatzeko.
- Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Telefonora.

ALTZAGA



IRVROK S.L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
OLABERRIA



NAGUSIA,7 • Tfnoa: 88 03 19 • 20200 BEASAIN

GURPIL BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 BEASAIN



Santa Maria, 8 - Tel. 88 12 11 - ORDIZIA

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MUJIK AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi
tailer eta zerbitzu-burua


N-1 Errep. Nagusia., 419.Km
Tfna: 88 74 00 / 88 74 04
Fax: 88 79 52 BEASAIN



KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu askotarikoak
ordua aurretik eskatuz. Tfnoa: 88 57 50 - 88 5854

Nafarroa etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**



Neurriko bizikleten salmenta
konponketa eta montajea

Urdaneta 56 • 16 11 97 ifnoa • ORDIZIA

Besteek esana

Ergelkeria

"Aurtengo maiatzaren 19'an bi urte aundi eta borobil bete dira Goierri'ko erri asko, orietako bat gurea, Itsasondo, arri jasa gogor batek, kiskali edo ondatu zituela. Geuk ikusi genuenez, kaltetutako errietako agintariak txalogarri eta zuzen portatu ziran kalteak jasan zituztenei laguntzen. Milla esker. Ori bera ezin dezakegu esan, ordea, goimallako agintari oriei buruz. Etorri bai, etorri ziran, zigortutako erriak bixitatzen zirela, ortik aurrera, zer egin dute? Utsa. Itz goxo eta polit ugari bai baina, baliogarrik ezer gutxi.

(...)Darabilkiten jokaera onek izen bakarra dauka: Ergelkeria".

"Ibai-Ertz", "D.V.", maiatz bukatzen.

Zeraingo Omenaldia

"Denborak gauzak aldatu egiten ditu. Gazteak berri-zale izaten dira berriz, eta artean askatasunik ez bazegon ere beste era bateko bertsoen egarria nabaitzen ziran batez ere gazteen artean. Bertsolaritzari bizirik eusteagatik maixu zaarrak erabiltzen zuten era bigun edo gaitzgabe artatik bertsolaritza salatzaile batera joan ziran bertsolari gazteak. Gaztediari gustoko janaria ematen nabarmen asi ziran bertsolariak Azpillaga eta Lopategi izango ziran seguru asko. Era-aldatze ura zala-ta Azpillaga eta Lopategi oso ondo aritu zituan erriak. Basarri eta Uztapide bezelaxe jendearen gogoko bikoite berezia izateraino. Saiatu ziran gazteen artean euskaldun kontzientzia sortzen eta indartzen, eta maixuak tokatu zitzaizkien garai artako eginkizuna ondo baiño obeto bete zuten bezela, Azpillaga eta Lopategi ez det uste egin zutena baiño geiago eskatzerik dagonik".

I. Olea, "D.V.", 92-V-29

Beasaingo kultur-bizitza

"Nahiko kanpotik begiratuta, ez nuke esango Beasain inguruan kultur mugimendu handiegirik dagoenik, inguruko beste zenbait herritan gertatzen den bezalatsu. Eta beharko lukeela izan argi dago. Horretarako dinamika egokia sortu beharko litzateke; ikastaro desberdinak antolatuz, proiekturik duen jendeari bideak zabalduz eta bitartekoak eskura jarritz (lokalak, materialak...) eta Euskal Herrian egiten diren kultur ekintzak herrian ikusteko aukera emanez".

Lorea Agirre
("Egunkaria"ko kazetaria),
"Gogor", 27. zenb.

"Nik, egia esan, ez dut baikor izateko arrazoi handirik

ikusten, ez Beasainen, ez Euskal Herrian. Zurikeria franko eta indar gutxi, denon aldetik, batzuk okerragoak badira ere. Hala ere, eguneko lanean eta burrukan segitu behar, independentziak berak ere konponduko ez ligukeen arazoa dela jakinda, beti ere.

Xabier Mendiguren.
"Gogor", 27. zenb.

CAF:

"1985.ean dagoeneko, 853 milioietakoa zen giza-kapitala, urte hori bukatzerako 1.185era iritsiko zirenak. Aro horretatik aurrera eta 90. hamarkada bitarte krisi garrantzitsu batean murgildurik geratuko zen enpresa hau. Horrek jarduten murriztapenak eta erretiratze aurreratuak ekarri zituen. Eta pa hori gauditu eta 90ak iritsirik, aide fresko eta berritzaileak somatzen dira enpresa barruan. 1905eko maiatzak 13ko data lehen bagoia kaleratzeagatik geratu bada historian, 1991ko abenduak 21ekoa ez da gutxiagokoa izango: izan ere, lehen abiadura handiko tren atera zuten baitzen honakoan beasaindar olatik Toledoruntz. Baina, apika, berri garrantzitsuen hurrengo egunetan zabalduko zen, CAFeko Administrazio Kontseiluan Euskal Kutzak parte hartuko zutena publikoa egin zenean. Helburua, konpainiaren industria- sendotzea, 1993eko merkatu bakarrak planteiatuko dituen erronkei aurre egitearren. Finantza operazio honek enpresal egitasmo berriak ekar ditzake, gutxieneko garantiakin.

Juantxo Unanua, "Beasain-Jaiak", "D.V.", 92-V-29.

GOIERRITARRA

"Izan dituzten bitarteko eta lan baldintzak ikusita, egin dutena txalotzekoa, benetan. Goierritar guttion begirunea eta eskerrona irabaziak dituzte. Behar bezalako eskuarterik ez dagoenean hutsuneak izatea normala da ordea. "Goierritarra" ere izango ditu noski. Kustioa da, behintzat, merezikotzukeen arrakastarik ez duela izan. Ondorioz, jende gehiago ere hasia zegoen Goierriko aldikari egoki bat nola burutu pentsatzen. Hala edo bestela, "Goierriko Herrien Ekintza" fundaziora iritsi zen pilota. Honek biabilitate estudioa enkargatu zion Joxe Aranzabali. Egin du eta orain hor dago udaletxe bakoitzeko kultur batzordeak diktaminatu eta Plenoak aproba dezan. (...)Joxe Aranzabalen informeak garbi jartzen du ez dela hutsetik hasi eta beste aldikari berri bat sortu behar. Baizik eta lehen dagoena oinarritzat hartu, zaharra aprobetxatu eta horren gainean eraiki berria. Hau, niretzat, hil ala bizikoa da. Badakigu herri honetan zenbat paralelismo antzu eta desintegratzaile ezagutu dugun. Bada garaia beste era batean lanean hasteko!"

Rufino Iraola, "D.V.", 92-VI-28.



GOIERRIKO ZABORREN TRATAMENDU-ZENTRUAK LEHEN URTEA ETA GEHIAGO BETE DITU

“Sasieta” Zabortegi Kontrolatua

*1.991ko martxoaren 5ean, Beasaingo Salvatore auzoan, Hondakin Solido Hiritarren (H.S.H.en) “SASIETA” izeneko Zabortegia jarri zen martxan. Sakontzeko as-
morik ez dudan istorio luze baten amaiera izan zen ger-
takizun horri esker, azkenean, aurreko egoerako ba-*

*rreiadu-
ra eta*

*kontrolik gabeko zabor-jaurtiketek giza-osasunean
nahiz ingurugiroan eragiten zituzten arriskuak eta era-
so kaltegarriak erabat baztertu dira.*



Makina trinkagailua lanean

Sasieta Zabortegian, Goierriko 22 udalerri-
tan banatzen diren 67.912 biztanleek sortzen
dituzten hondakinak jasotzen dira. Udalerriak
honakoak dira: Altzaga, Arama, Ataun, Bea-
sain, Ezkio-Itsaso, Gaintza, Gabiria, Idiazabal,
Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Muti-
loa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura,
Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zuma-
rraga.

Lerro hauen bidez, bi hitzetan bada ere, Za-
bortegiaren egiteko nagusiak eta funtziona-
menduan egon den lehen urteko emaitzak azal-
du nahi nituzke.

Gaur egun erabiltzen diren hondakinen ges-
tio-sistimen artean, Zabortegi Kontrolatuak na-
gusitasun osoa duela ukatzerik ez dago. Jaurti-
keta kontrolatua da nagusi Europan. Bertan,
zaborrak lodiera txikiko geruzetan (kapatan)
zabaldu, trinkotu eta egunero gai inerteaz es-
taltzen dira, ingurunearenganako kutsadura-
arriskua gutxitu eta gai hartzigarrien (fermen-
tagarrien) eraldaketa biologikoari lagundu as-
moz.

(...)

Horrek, dudarik gabe, diseinuari buruzko xe-
hetasunak jasoko dituen proiektua, ardura
haundiz egindako eraikuntza, gestio eraginko-
rra eta behin betiko itxiera egokia barnebildu-
ko dituen obra moldatzea eskatzen du. Bat ba-
teko erabakiak baztertu eta gai hauetan erabili-
tako erizpideak egokiak baldin badira, Inguru-
giroak edota Osasun Publikoak ez du zertan
kaltea

Abantailak

12 Goierritarren

Propaganda egiteko asmoak alde batera ut-
ziaz, esan beharra dago, Zabortegi Kontrola-
tuek, beste suntsiketa edo tratamendu-sistima
batzuren parean, abantaila nabarmenak dituzte-
la, esatebaterako:

1.- Instalazio eta funtzionamendu aldetik
kostu txikikoak dira.

2.- Hondakinen produkzio-aldaketa nabar-
menak onartzen dituzte (Sasieta Zabortegian
adibidez, egunero batezbeste 70 tona hondakin
sartzen badira ere, sarritan, astelehenetan bati-
pat, kopuru hori bikoiztu egiten da).

3.- Ingurugiroarenganako erasoak eskasa da
(kokapena eta gestioa egokiak diren neurrian).

4.- Marraskari eta intsektuen ugaltza,
usain txarrak, kea, haizearen eraginez ematen
den plastiko eta
paperezko zati ari-
nen barreiaketa eta
kontrolik gabeko
zabortegiek sortu
ohi dituzten beste
hainbat eragozpen,
desagertarazten di-
tuzte.

5.- Ez dute ba-
liogabetzen edo
baztertzen beste
tratamendu sistima
batzu (berziklapene-
na, errausketa,
konpostajea, etab.)
ezartzeko egon li-
tekeen aukera; eta
prozesu hauetan


sortutako hondarrak absorbitzeko gai ere badi-
ra.

6.- Hondakinen hartxidura anaerobio proze-
suen ondorioz sortutako BIOGASaren energia
probatzeko aukera ematen dute.

7.- Behin itxi eta gero, berdegune edo jolas
eremu bihurtzeko aukera ematen dute.

Beraz, 5. puntuaren arabera, Zabortegi kon-
trolatua, hondakin solido hiritarren edozein
motatako suntsiketa edo tratamendu- sistima-
ren **azken pausoa** dela esan genezake, zuzene-
ko edota beste edozein tratamendu edo berzik-
klapen-prozesuaren ondorioz sortutako hondar
inerteak jaurtitzeko asmatua.

Jaurtiketa kontrolatuaren egiteko nagusiak,
honakoak dira (**ikus marrazkia**):



1.- Hondakinak laneremuan zabaldu.

2.- Hondakinak trinkotu. Sasietan erdi-maialako dentsitateko trinkoketa egiten da. Makina berezi bati esker zaborraren dentsitatea 800 kg/m³raino heltzen da.

3.- Hondakinak gai inerteaz estali (horretarako ARISTRAIN S.A.ren galdategietako zepak eta lurra erabiltzen dira).

Zabortegiko barne-erreakzioak

Zabortegiak ekosistema bat balitz bezalaxe jokatzeko du, bertako erreakzio fisiko, kimiko eta biologikoen, hasiera bateko gai organikoak aldarazi eta solido egonkorak, gasa eta lixibatuak sortzen dituztelarik. Azken bi hauek dira hain zuzen, arreta gehien eskatzen duten faktoreak.

Lixibatuak

Lixibatuak, jaurtitako zaborren destilazioaren eta berauen artetik euriaren iragaztearen ondorioz sortutako likido kutsagarriak dira.

Lixibatuak behar bezala kontrolatzeko, Zabortegiko lur- azalaren iragazkaiztasunean oinarritutako zoruko eta zoruazpiko drainaketa eta bideraketa-sare bat diseinatu da. Sare horri esker, gaur egun, Sasietako lixibatuak 70 m³ko biltegi berezi batean pilatzen dira, ondoren Araztegira eramateko.

Gipuzkoa osoan ur-zikinenezako Araztegi bakar bat baino ez izateak, gure Lurralde Historikotik irtetzera behartzen gaitu. Durangoko Merinaldeko Ur-Partzuergoarekin egindako gestioei esker, Sasieta Zabortegiko lixibatuak Durangoko Ibaizabal-Garaiko Araztegi-eramaten dira behar bezala tratatzeko.

Hilero bataz besteko 60m³ lixibatu (70 tona gutxi gorabehera) ebakuatzen dira, horretarako kamioi zisternadunak erabiltzen direlarik. Aurtengo apirila bitartean 251 tona lixibatu garraiatu dira.

"Kontrolatua" izena hartu nahi duen Zabortegiaren funtzionamendua zuzentzen duena filosofiaren aurka legokeen tentazioak baztertuaz, Sasieta Mankomunitateak, bere kabuz, lixibatuak buruz hartu duen jokabidea, zentzuduna izateaz gain, **ekologikoa** ere badela ez dago ukatzerik, nahiz eta horren eragin ekonomikoa oso altua izan. Esan beharra dago, Beasaingo Zabortegi Kontrolatua dela, Gipuzkoa osoan, oraingoz lixibatuak tratatzen dituen Zabortegi bakarra.

Biogasa

Gauza jakina da zabortegian jaurtitako material solidoak, denboraren poderioz, hartzidura anaerobioa (oxigenorik gabekoa) jasaten dutela. Prozesu honek ordea, hondakinaren egonkortasuna eta inertizazioa lortzeaz gain, gas nahasketa berezi bat sortarazten du. Orokorki zabortegiak **digeritzaile anaerobiko** bat

balitz bezalaxe jokatzeko du eta hartzidura prozesu mikrobiologikoaren bidez, bi urtetako epean gutxi gora-behera, oreka-egoerara iristen den gas-nahasketa (metanoa eta karbono dioxidoa gehienbat) sortzeko gai da.

Gaur egun, Sasietan, biogasaren erakarketa eta sunsiketarako, erregailu aproposa erantsita daramaten burnizko zuziak erabiltzen dira. Zabor-masan txertatuta, material iragaizkorrez eta polietilenozko HDPE tubo zulodun batez osatutako potzu hauetatik gasa berez irtetzen da. Metano gasaren indar kalorifikoa 8.942 kcal./m³-takoa da gutxi gora-behera. Biogasak duen metano portzentaia %50-55 artean egon ohi denez, normalki kalkulotarako 4.450 kcal./m³ (%50eko CH₄a) hartzen da. Euskal Herriko hiri-hondakinaren konposaketa kontutan hartzen badugu, 20 urtetan zehar, hondakin kg. bakoitzeko 200 litro CH₄ko errendimendua onar daiteke. **Datu honek agerian uzten du biogasa probetxatzea interesgarria dela eta Zabortegi Kontrolatua etorkizunerako energia-erreserba bihur daitekeela.**

Jaurtiketa-datuak

Goierritar bat baino gehiagori noizbait bururatu zitzaien, urtean zehar, sortzen duen za-

bor-kopurua txantxetako ez dela. Norbaitek kezka hori izan baldin badu, horra hor Sasieta Zabortegiak, urte betean (91-III-5tik 92-II-29rainoko denboraldian) jaso dituen etxeetako 16.420.100 kg zabor eta beste 1.979.655 kg. zabor inerte. **Zabor guzti hauek futbol zelai batetan sartuko bagenitu, 7 metroko lodiera hartuko lukete.**

Beraz Sasietan, batezbeste egunero 52 tona zabor jaurtitzen dira, horietatik 46,5 tona (%90) etxeetako zaborrak eta 5,5 tona (%10) zabor inerteak direlarik.

Taulan aurkezten diren datuen arabera, 4 pertsonaz osatutako ereduak familia goierritar batek, urteko 834 kg. zabor produzituko luke. Zabor-kopuru hori, Beasain, Ordizia, Zumarraga etab. bezalako hiri haundietan dextente igotzen da, urtero 1.168 kg.tara iristen delarik eta herri txikienetan berriz, 584 kg.tara jeisten da.

Kantitate hauetan ez dira kontutan hartu, ez berziklatzen diren beira edo papera, ezta hondakin inerteak (obretako hondarrak etab.) ere.

Iñaki Erauskin

* SASIETA MANKOMUNITATEKO
Kudeatzaile- Zerbizuburua.

ETXEETAKO ZABORREN JAURTIKETA-DATUAK
1.991-03-05 - 1.992-02-29 DENBORALDIA

UDALERRIA	BIZTANLEAK	KG/HILEKO	KG/EGUNEKO	GR/BIZ/EGUN
ALTZAGA	94	1.024	34	361
ARAMA	139	1.718	57	409
ATAUN	1.737	24.515	813	468
BEASAIN	12.311	291.387	9.659	785
EZKIO-ITSASO	545	2.119	76	139
GABIRIA	432	2.490	83	191
GAINTZA	123	978	32	264
IDIAZABAL	2.056	38.377	1.272	619
ITSASONDO	640	11.345	376	588
LAZKAO	5.023	111.145	3.684	733
LEGAZPI	9.887	167.850	5.511	557
LEGORRETA	1.515	23.895	792	523
MUTILOA	184	3.818	127	688
OLABERRIA	1.123	37.618	1.247	1.110
ORDIZIA	9.224	221.393	7.339	796
ORMAIZTEGI	1.235	21.611	716	580
SEGURA	1.288	24.450	810	629
URRETXU	6.065	142.675	4.685	772
ZALDIBIA	1.573	23.615	783	498
ZEGAMA	1.399	20.204	670	479
ZERAIN	227	4.847	161	708
ZUMARRAGA	11.092	236.287	7.759	669
	67.912	1.413.361	46.686	571

“Siadeco”ko Iñaki Larrañagarekin solasean euskarari buruz

Euskararen egoera, zein herritan galtzen ari den, non indarberritzen, zein esparrutan makal dabilen, zeinetan ez eta abar jakin nahi dugunean, “Siadeco” etortzen zaigu burura. Talde honek egiten ditu normalean euskararen inguruko datu-bilketak eta azterketak.

Eta talde honek esaten digu aldagetak eta erasoak zergatik gertatzen diren. Eta talde honen sortzailea dugu Iñaki Larrañaga lazkaotarra (Itsasondoko erretoare aspalditxotik). Gutxiak dakite berak bezain ongi datuen “mezu ezkutu” azaltzen.

G.- Hizkuntza baten transmisio-biderik ohizkoena familia da. Nola ari da familian euskara belaunaldiaz belaunaldi pasatzen?

I.L.- Famili bidez naturalki ikasten da lehenik eta gero kulturalki eskolaren bidez osatzen. Eta ez bakarrik eskolaren bidez, baita komunikabide sozial, lan eta abarren bidez ere. Hizkuntza ekintza sozial bat da, eta bere erreproduzio- mekanismoak ditu. Egoera ez-normalizatu batean erreproduzio- sistema horietako batzuek huts egiten dute. Familiak esaterako. Hori gertatzen ari da aspaldian Euskal Herrian. Gurasoek zekiten proportzioan ez dietela beren seme-alabei irakatsi. Hori gertatzen da gurasoek euskaraz dakitenean, biek alegia.

Gipuzkoan, adibidez, 81eko errolda hartuta, %11n gertatzen da hori, euskara gutxi edo asko galdu dutela. Galera handiagoa da ezkontza mistoetan, batez ere ama erdalduna denean. 81eko eta 86ko erroldan garbi ikusi da hori. Gero

badago fenomeno bat azken urteotan gertatzen ari dena. Bai familia mistoetan eta baita erdaldunetan etxean ikasten duten erderarekin batera euskara ikasten dutela eskolan. Eta badagoela belaunaldi berri bat, 10-12 urtetik beharakea edo, jatorrizko hizkuntza bezala biak aitatzen dituen. Baina urteen poderioz hauek euskara gehiago galtzen dute guraso euskaldunak dituztenek baino. Hala ere, esan daiteke famili transmisioak une larriagoak pasa dituela, gerra ondoren batez ere. Herri-aldizkariak: aberasgarriak


G.- Komunikabide sozialak aitatu dituzu. Euskal eta erdal komunikabideen artean desoreka handia dago.(/)

I.L.- Hori da dugun hutsunerik handienetako, bai telebistan, irratan eta prentsa idatzian. Horrek zer esan nahi du? Euskaldun jendea arrisku bizian dagoela momentu oro erdal komunikabide sozialen baitan geratzeko eta euskaldunekin komunikatu ezinik ibiltzeko. Euskal komunikabide sozialek euskararen erretransmisio soziala ziurtatzeko behar diren gutxieneko baldintzak ez dituztela. Hor bada beste alderdi bat. Hizkuntzaren kalitatea. Hor komunikabide sozialen erantzukizuna handia da. Kalitate hori lortu da prentsa idatzian, ez hainbeste ahozkoan. Telebistan ikusten dut hutsunerik nabarmenenena. Ez da behar hainbat zaintzen emaitza duin bat eskaintzeko.

G.- Eta zer diozu hainbat eta hainbat lekutan sortzen ari diren herri eta bailara-aldizkariak?

I.L.- Gertaera berri eta interesgarria da hori. Horrek esan nahi du aldizkari horien inguruan jende-talde bat dagoela, eta gehienetan herriko euskaltzaleen artean sortutako giroari dagoela lotua. Ikusi dute aldizkari bat lokarri izan daitekeela jendearen artean. Aldizkari horiek tokian tokiko informazioa indartu nahi delako sortu dira, informazio lokalak duen saltsa hori, bizitasun hori... Eta euskaldunak irakurtzeko duen beldur eta errezelo hori gaingritzeko ere beharrezkoak dira. Askoz errazago irakurtzen dira etxeko kontuak herriko hizkuntzan, beste aldizkari edo egunkari batzuk baino. Horrek ekartzen du irakurtzeko beldurra ez dela hainbestearinokoa, eta nolabait alfabetatze-lana ere egiten ari direla.

**G.- Baina zuk uste duzu euskaldunok badugula hizkuntzaren inguruan biltzeko go-
gorik?**



Argazkia: X. Elgezabal

I.L.- Azken hamabost urteotan euskalduna bakoitza bere aldetik ibili da. Euskara bere “bandera” egin eta “banderismo” batean ibili gara. Eta jende asko konturatu da horrela ez goazela inora. Eta, euskara guztion altxor bada, hori hitzez esatea ez dela nahikoa, hori gauzatu egin behar dela. Aldizkariak sortzea kontestu horren barruan sartuko nuke nik. Eta hori guztiz aberasgarria da eta bideragarria da beste maila bateko prentsa eta komunikabide idatzietara pasatzeko. Herriko aldizkaritxoak irakurtzen duenak era errazago batean irakurriko du maila nazionaleko beste produktu bat. Hizkuntzak ez badu funtzio lokala betetzen, nekez beteko du funtzio orokorragorik. Eta hizkuntzak funtzio nazionala bete behar duela esaten badugu, nekez gertatuko da hori familia edo funtzio lokalak bete gabe.

Bada hor beste kontu bat. Ez ditugula kontzientzia pertsonalak batu, eta jende asko erre egin da, nazkatu. Gainera, konfrontazio-mundu batean bizi izan da, baita euskaldunen artean ere. Orain batunahia etorri da. Askotan norbanakoaren kontzientziaren baitan jarri da euskararen berreskurapena. Hori tranpa bat izan daiteke. Norberari errua botatzeko era erraza. Hizkuntza gertaera soziala da, pertsonen arteko harremanetan gauzatzen da. Eta hizkuntzaren aldeko inertzia sozialak martxan jarri behar dira.

G.- Nola?

I.L.- Adibidez lehen aitatu ditugun aldizkariak. Zer egiten dute? Irakurtzeko inertzia sortu. Inertzia gehiago sortzen ari da erabilera-esparru gehiago sortzen ari delako. Eta egunen batean aldizkaria iristen ez bada, jendeak esango du: “Ze, gaur ez al da etorri?”. Horrela elikatzen da norbanakoaren kontzientzia.

“Habe”-tik hartua

ORDIZIAR KAZETARI "FREE-LANCE" BATEN ANDANTZAK ETA MUDANTZAK

Bizimodua sinestezina Hegoamerikan, europearron ikuspegirako

Kazetaritza ikasten hasi nintzenetik —beharbada lanbide horrek niretzako duen abentura-usainak erakarrita— beti izan dut buruan bidaiaren bat egitea, bai erreportaiak burutzeko eta baita horien bitartez kezkagarriak iruditzen zaizkidan errealetearen zenbait alderdi salatzeke.

Horrela bada, karrera bukatutik, Hego-Amerikarantz abiatu nintzen urtarilean, bereziki deigarriak egiten zitzaizkidan herrialdeetara.

Amerikar lurraldeetan jada, lehendabizi Venezuelaren jarri nituen oinak. Bertako egoera politiko-ekonomikoak harritu egin ninduen, txarrerako harritu ere. Petrolioak sorturiko herrialde aberats eta orekatua espero nuen. Baina porrot larrienera eraman duen Estatu ustel eta korruptoa aurkitu nuen. Horregatixe ez ninduen batere harritu otsailak 4eko Estatu-kolpe saioak; ez eta ere herriaren gehiengoak kolpisteen alde egon izana. Bestalde, herrialde horretako Amazonia ohianean ere izan nintzela esan behar. Hantxe bertako etnia ezberdinekin batera izan ninduzuen: izugarritako esperientzia bizi izan nuen.

Hurrena, Cuban egin nituen egun batzuk. Larrutik probatu nuen hango bizimodua, ze nire dolarren ordeze cubar pesoak hartzeak edozein cubar bezala bizitzea zekarren. Larrutik ezagutu nuen irlak jasaten duen eza. Cuban 10 egun igarota, hurrengo ondorio tristera iritsi nintzen: basatia eta haserretzeko modukoa dela herri oso bat, bizitzeko era jakin bat aukeratu duela, kondanatua izana.

Caracasera bueltan, hor hasi ziren nire ibilerak hegoamerikar errepideetatik, autobus desagokietan joaten bait ginen venezolar hiriburutik Limaraino (7.000 bat km.). Panamericana eta beste zenbait herrixketan noraezean ibili ondoren, astebetzez bertan gelditzeko asmoz, Bogotara ailegatu nintzen. Hala ere, hiri hartan aurreneko egunean gertatu zitzaidana ikusi eta

gero, nahi baino lehen egin nuen osapa Colombiatik: goizean atxilotu (auskalo zergatik) eta poliziek lau ordu luzez eduki ninduten biluzik erretenituri. Ezer gutxi zekiten poliziok giza eskubideei buruz, horratio! Egun bereko ilunabarrean 14 urteko mutil-kozkor baten erahilketaren lekuko izan nintzen. Oinetako pare bat lapurtzeko hil zuten. Horrela, presaka eta korrika, Bogota utzi nuen Perura joateko. Bidean, Ecuador, herrialde erabat txirra.

Peru neukan bidaiaren etapa nagusitzat, zeren han egin nahi bait nituen erreportaiarik pisuzkoenak. Liman egin nituen lagun eta harremanei esker (eta mundu guztiari eskupekoak emanda) bai hiriburuko eta bai mendietako haur peruarrei buruzko erreportaiak egiteko guztiz erabakiorrak izan zaizkidan datuak jaso ahal izan nituen.

Han fortunatu zitzaidan ikustea heldugabeon bizi-baldintzak. Europear ikuspegitik, sinistu-ezinezko kondiziotan daude umeok.

Hasi zen lekuan bukatu zen nire bidaiak, Venezuelaren. Han utzi nuen, erabat jota, krisi politiko-sozial batean kaiteatua, herri hori. Ez litzaidake batere harrituko, hauetako egun batean, herrialde hartan suertatzen diren gertakari desorekatzaileok berriro ere irabaztea portadak gure prentsan.

Azken ondorio bezala, esan, niretzako eskarmentu guztiz aberasgarria izan dela bidaiak hau. Gauza asko ikasi bait ditut. Ezin latzagoak diren egokierak ulertu ditut, beste begi batzuekin ikusiz gauzak, beste pentsakera batekin. Nire bizitzan arruntak jotzen nituen alderdiak gehiago preziatzen ikasi dut. Dena dela, une txarrak une txar, osorik bueltatu naiz eta nahikoa pozik Amerikatik. Ahal dudan bezain pronto, han naiz!.

Alex Saldaña



Cubako PCren "Gramma" irakurtzen.



Kartzela-atarian

Oinetako pare lapurtzeko hil zuten mutiko bat. Testigu naiz.

Ez ninduen harritu Venezuelako Otsaileko Estatu-kolpea herriak begi onez ikusteak.

LAZKAOKO EUSKALTEGIAN UR ETENGABEA EUSKAL ERROTA MOGITZEN

Maizpide: Goierrira eta Euskal Herrira begira

Maizpide Euskaltegiak HABE-rekiko lehen hitzarmena (88. urtekoa), Euskaltegiaren inaugurazio ofiziala (88-IV-23), eta Maizpideko hileroko lehen ikastaroa 88ko apirilean gauzatu zituen, nolabait esateko; data horietan martxan hasi zen, baina nahiz legearen arabera gauzak horrela izan, lehendik euskara ehotzen ziharduen euskal errotaren historian oinarriturik ekiten zion ekimen berriari.

Edifizioari buruz, etxe berria inauguratu zen urtetik, Eusko Jaurlaritzak Maizpide Elkartek Kulturalari hamar urterako, 88-98, zezioan utzia da.

Funtzionamenduari dagokionez, urtero, erakunde pribatua den Maizpide Kultur Elkartek hitzarmena egiten du HABE-rekin, eta honen baitan barnetegi-erara 90 ikasle euskara ikasten dute subentzionaturik. Era berean, barnetegitik kanpo, hau da, klaseak soilik subentzionatuta, 25 ikasle babesten ditu. Hortik gorako ikasle guztien irakas-kuntza, erakunde pribatuaren eskutan egonik eta subentzionatu gabe, ekonomikoki ez da onuragarria, Maizpide Euskaltegiarentzat.

Hala eta guztiz ere, lau urtetako esperientziak frogatzen du Maizpide ez dela ekonomiaren morrontzari lotu, eta hileroko etorri ohi den ikasleria onartzen saiatu dela. Beraz, sorreratik, lau urteotan Maizpideko Goierrira eta Euskal Herrira begira dihardu lanean. Lehengo "Goiherriko Euskal Eskola"ren antza du ikuspegi honetatik.

"Barnetegi honetan barneikasleek barnebizitza astelehenetik ostiralera normalki egin dezaten, mota askotako pertsonok parte hartzen dugu: gauzainak, bulegariak, garbitzaileak, sukaldariak, irakasleak... Beren zeregin garrantzitsua dute denek, euskaltegi baten bidea urratu eta finkatzen duen indar eragilea da pertsona hori", diosku Peio Joxe Aranburu zuzendariak.

Lehengo errotaren metaforari jarraiki, euskaltegi honetan eihera, eihera-harria, uharka edo presa aldatu da, baina "Goiherriko Euskal Eskola"ko eta Maizpideko euskal errotari eragiten zion eta dion errekak ura



bera da, etengabe iragan eta berritzen doana, konstantea eta horregatik eragin bortitza duena, esperientzia oinarriturik talde-lanean are trinkoa eta gozoa banatzen duena

euskalduntze-alfabetatze eremu zabalean. Azken 12 hilabetetako datuak emango ditugu jarraian. Hiru zerbitzu mota gauzatu dira, euskararen irakaskuntzaren alorrean.

1.- Urtean hamabi ikastaro hilerokoak:

1991ko Uztailan	= Pentsio osokoak	251/Pentsio erdikoak	10/Klaseak bakarrik= 24
1991ko Abuztuan	= Pentsio osokoak	152/Pentsio erdikoak	6/Klaseak bakarrik= 4
1991ko Irailan	= Pentsio osokoak	127/Pentsio erdikoak	6/Klaseak bakarrik= 15
1991ko Urrian	= Pentsio osokoak	103/Pentsio erdikoak	9/Klaseak bakarrik= 8
1991ko Azaroan	= Pentsio osokoak	128/Pentsio erdikoak	10/Klaseak bakarrik= 8
1991ko Abenduan	= Pentsio osokoak	125/Pentsio erdikoak	7/Klaseak bakarrik= 8
1992ko Urtarrilean	= Pentsio osokoak	131/Pentsio erdikoak	6/Klaseak bakarrik= 6
1992ko Otsailan	= Pentsio osokoak	129/Pentsio erdikoak	8/Klaseak bakarrik= 7
1992ko Martxoan	= Pentsio osokoak	135/Pentsio erdikoak	8/Klaseak bakarrik= 7
1992ko Apirilean	= Pentsio osokoak	125/Pentsio erdikoak	8/Klaseak bakarrik= 6
1992ko Maiatzan	= Pentsio osokoak	144/Pentsio erdikoak	8/Klaseak bakarrik= 6
1992ko Ekainean	= Pentsio osokoak	105/Pentsio erdikoak	8/Klaseak bakarrik= 7

2.- Gau-Eskolan: 6 talde = 59 ikasle.

3.- Ikastaro Bereziak: 91ko uztailan Alf. Tek. = 9 ikasle. Udazkari bati programa egokitua 3 hilabetetan.

Irakaslearen lanaz/Elkartu beharraz

Euskaltegiak, Maizpide esan nahi dugu, badu Ikas-Irakaskuntzarako Plana, "gutxi edo gehiago urtero aldatzen eta hobetzen doana. 91-92 ikasturteari begira bi gauza azpimarratu nahi ditugu", diosku zuzendaritzak.

"Urtero Glotodidaktika eta Metodologi ikastaro berezia egin ohi izan dugu urtarillaren lehen egunak aprobetxatuz, irakaslegai

berrien harrobia ez agortzeko eta Lazkaon uztailan antolatu ohi den ikastaro jendet-surako irakasleak sortzeko. Aurten ez genion, urtearen lehen egunetako ikastaroan, betiko ohiturari jarraitu. Maizpideko irakaslegoaren barne azterketa eta helburua finkatzea egin genuen, apirilaren 29 eta 30ean jarraipena emanez." "Astero eta hileroko didaktikako bileretan egiten den prestakuntza

eta berrikuntzaz gain, entzumena, mintzamenaren eta idazmenaren lantzeko esperientzia eta teknika ezberdinen bateratze eta finkatze lana egin genuen. Azken urte honetako lorpen bikaina hau da: seigarren urratetik gorako mailerako entzumena, mintzamenaren eta idazmenaren lantzeko oinarri sendo, bide zehatz eta materiale finkoa hautatu eta begiztatua dugula", jarraitzen du Pellok. "Urteetako eskarmentuak bigarren gauza azpimarratzen garamatza: gure aspaldiko metodologia eklektikoaren alde egon gare-

nok, ez gurea soluzio magikoetan sinesen adierazteaz gain, irakaslearen eginkizuna oso inportantea dela uste dugula. Irakaslearen eginkizuna aipatzean, bere lanaren ikuspegi globala esan nahi dugu: prestakuntza ikasleekiko harreman guztiak, klasean eta hortik kanpo gauzatzen direnak, euskararen irakaste prozesu osoan irakaslearen paper motibatzailea, e.a.

Maizpidekoan ustez, Goierri eskualdean euskalduntze- alfabetatze lanetan dihardugunon artean gutxieneko koordinazioa eta

lotura handixeagoa beharko genuke izan, bai zenbait kanpaina burutzerakoan, "Transmisio kanpaina" esaterako, bai irakaslearen erreziklaje edo metodologi ikastarorak prestatzerakoan,...

Honekin, bidean zenbait traba eta eragozpen ikusten baditugu ere, dudarik gabe goierritar guztiok aterako ginateke irabazten, eta guztien gainetik **euskara** bera. Gu, gure aldetik, prest gaude pauso txiki/haundi hori emateko". Hor dago Maizpide Euskaltegitik datorren proposamena.

• Iritzia

Han ere zakurrak oinutsik!

(Xabier Armendaritzek piztutako eztabaidari segida emanez)

GOIERRITARRAren 24.ean Xabier Armendaritzek botatako enbidoa jasota (herri-euskarari ahalik sutsuen eusteko gonbita baitzen berea), baina ordago jotzeko asmorik gabe. Lehen-lehenik esan, lehia honetan Armendaritz kontrariotzat ez baino bikotekidetzat hartzen dudala eta gure kartak, oso osorik bat ez etorri arren, badutela kointzidentziarik. Soin eta muinez euskal senari eutsi behar diogula pentsatzen dugu biok.

Lehenengo batean, Estatuko jendeak euskaldunotaz duen iritzia azaltzen zuen programa bat ikusi nuen ETB1ean. Elkarriketatu zuten andaluziar batek hemen, munduko beste edozein lekutan bezalaxe, jende-moeta guztietakoak egongo garela uste zuela adierazi zigun eta, borobiltzeko-edo, ziplo bota zuen: "En todas las partes cuecen habas". Oza-ozta hitz horiek entzun eta ia batera entzun ahal izan genuen erdarazkoaren euskal ordain hau: "edonongo lapikoe-tan egosten dira babarrunak". Zapoeuskara horrek minzirri bat eragin zidan belarrietan eta, andaluziarraren ahoan itzulpen trakets hura ez baino "han ere zakurrak oinutsik ibiliko dira!" paratu beharko zuketela pentsatu nuen. Itzultzaileak taiu pittin bat izan balu, "han ogia ez da eguzkitan erreko!" ere ezar zezakeen.

Izan ere, euskaldun petoa denak sekula ez baitzitu halako mordoilokadarik botako. ETBko "traduttore traditore"ak aipatu ditudan gipuzkerazko bi esaera zahar horietara jo ezezik beste euskalkietakoe-tara ere jo zezakeen. Horrek hau da dakarkit gogora: hitzezko altxorra ez dela Goierri aldeko aitona-amonarik zaha-

rrenen ganbaretan gordetzen dena eta, beraz, ez dugula beste inongo ganbaratakoa bertan behera utzi behar. Honaino, bistan denez, elkarren osagarriak dira Armendaritzen kartak eta nireak.

Nolanahi dela ere, gure geografia guztiko ganbaretan umatutako fruitu amankomunak ez ditugu inolaz ere mazpildu behar. Gutxitxo kosta zaigu ba zazpi bazterretako senideen artean ortografiatzeko uza bildu eta batzea! Hobe beharrez txokoa txokokoa nabarmen plazaratzeari ekin eta txokokerian eror gintezke.

Irakurleak badaki honez gero zertan urruntzen den nire irizpidea Armendaritzarenenetik. Honek, honela ekin baitzion trabesiari: *nun, haundia, gerok, det, ziero, orregatio...* eta horien antzeko kartak GOIERRITARRA-komahai gainean uzteko proposatuz. Horretaz nire lehenengoburutapena da, karta-soka horrek bukaerarik ba ote duen. Izan ere *haundia/nun...* mahairatuz gero, *haunditik, haundiegia, haundiko.../nungoa, nundik...* mahairatu beharko genituzke. Gainera, eman kontu, goierritar jokalaria zer herritakoa den arabera, ginen-en orde *ginden, gintzen, giñutzen, giñutzenan, e.a.* bota litzake. Horrelakorik ez gertatzearen, eta X.A.-ek proposatzen duen partida berria legearen anparoan jokatu ahal izateko, existitzen ez den Goierrirako ortografiatzeko karta-jokua sortu eta arautu beharko genuke. Baina, Goierrirako propio diratekeen arauak finkatu eta GOIERRITARRA-ra eramango bagenitu ere, jokamolde horrekin irabazte aterako al zen euskara batua? Ez, ene ustez. Nolanahi, begi onez ikusiko nuke Armendaritzen apustua bi kasu ja-

kin bakar hauetan: bata, jadanik ditugun arauak, euskara batuarenak, ezagutzen ez dituen adinean oso sartutako hemengo gizon-emakumeren baten hizketaldia, GOIERRITARRA-ra ekarri nahi izatekotan. Hori egitekotan, oso kasu bakane-tan egin beharko litzateke, batuaren aldeko partida nagusiari muzinik egin nahi ez badiogu behinik. Bigarren, nobela baten pertsonaiaren batean goierritar erako hitzak zehatz-mehatz transkribatu genitzake, eleberri eta pertsonaia horren izanak hala eskatuko balu bedaio.

Baina, azken lerroetakoak ez bezala, badituzte Armendaritzarekin bat datozen bestelako kartak ere. Lexikoarekiko sena. Adibide edo karta bakan batzu botata, hobeto ulertuko dugu elkar. Batuan, behar baino sarriagotan hauetakoak ikusten ditugu: ehizatu, arrantzatu, jolas-tu, bultzatu, norbaitekin nonbait "gelditu", desagertu, jeneralki, normalki, suposatu, niretzat, zorionak!.

Bota ditzadan, ordea, Goierriko izpirituz baliaturik, aurreko zerrenda exkaxaren ordezkoko beste karta batzu, dexentez egokiagoak: ehizean ibili; bota; ehizean egin; ehizara joan; arrantza egin; arrai-netan ibili; harrapatu; atera; jolas egin; jolasean ibili; ahaztu gabe gauza bat dela "jolasa" eta beste bat, oso bestelakoa, "jokua"; bultzatu egin; hitzemanda egon; aginduta egon; hizketatuta egon; galdu; ezkutatu; gehienbat; gehienetan; "suposatu"ren partez aditz eta esamolde ugari erabil daitezke, euskal sen pittin bat izanez gero behintzat; nirekiko; nire baitan; nire golkorako...; urte askotarako!

Bi zerrenda horietako kartak aurrez-aurrez jarrita, agudo erortzen gara kontuan euskara batuan badugula zer orrazturik. Orrazketa, bestalde, zerrendetako-ei ezezik beste hitzezko karta askori egin beharko genieke.

Xabier Gartzia.

“Gureak”

Tailer Babestuak

“Gureak” Tailer Babestuak eratu zirenean 1975.ean (“Atzegi”k banantzeko bidea libre utzita), gutxiengotu psikikoen integrazioa (bai lan munduan eta bai eta gizarte-mailan ere) erraztu asmoz, ezinezkoa zen ekimen honek urteen poderioz lortuko zukeen pisua eta neurria aurreikustea.

Irakurleari, “Gureak”ek osatzen duen mundu oso eta konplejuaren berri ematen saiatuko gara, Zuzendari Komertziala duen Joxe Mari Iruin zaldibitararekin batera. Berarentzat, errelajanteena, egunaren buruan akatsen batek jotako pertsona hauekin broma batzu egitea da. Horrek animatzen du aurrera egitera.

Goierriko kasua

Iruinek 12 urte daramatza binkulaturik tailer horiekin. Hasera batean, baldintza onenak biltzen ez zituen tailer txiki bat zuten Ordizian, 12 lagun. Denera jota 250 lagun biltzen zituen erakundeak. Itsasondan aurkitu zuten aproposoko lokala eta zeramikarekin hasi ziren bertan. “*Nahikoa hankazuloa izan zen gainera; lokatzarena nik bizi izan dudana esperientziarik jatorrena izan da, baina diru asko galdu genuen*”. Konpetitibitatea zen kakoa.

9 urte eta gero, Goierriko sukurtsal honek, esaterako, 40 lagun biltzen ditu, goierriar atzeratuak gehienak, hasi lkaztegietatik (bertan dute etxea batzuk) eta Zegamarainokoak. Batez ere ontziraketa eta paperaren manipulatuan dihardute, flexibilitatez, geroz eta lan espezialduagoetan. Makina ontziratzaile automatikoa eta blok-koadernoak egitekoak sartu dituzte. Hazkundera galanta.

Bulego orokorrak Hernanin dituzte. Mila proiektu, Goienetxan adibidez, 600.000 telefono egiteko enkargua... Enpresa-itxuran, 4 Dibixio, departamendu bakoitzak du bere administrazioa eta, guztira, 1180 bat langile eta 120 bat enkargatu dira bertan egun.

“*Juridikoki, S.A. bezala muntatu zen*

Gureak, berezitasun batekin: aberasteko asmo-gabe. Lehen erabaki garrantzitsua, AGPS/Atzegik berak onartzea, lan iniziatiba aurrera zihoanez, gurea enpresa autonomo gisa jarri behar zela martxan eta autonomia osoa eman zitzaigun jestioan”. Erakunde ezberdina dugu hau, beraz, Estatu osoan daudenekin alderatuz gero. Zorte handitzat jotzen du zaldibitarrek, AGPSen egoitea zeudenak.

2. pausua Gipuzkoako bailada bakoitzean tailer bat eratzea izan zen. Momentu honetan, tailer batetik beste batera 20 km. inguruko tartea legoke. Oraintxe dituzten 14 tailerrekin (Iruin, Oiartzun, Donostia, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Tolosa, Itsasondo, Legazpi, Bergara, Arrasate, Eibar, Zestoa eta Orio) lurraldeko atzeratu mental heldu guztien beharrak asetuak daudela esan daiteke.

Beste ezberdintasun bat Estatuko beste erakundeekin: “*Hau nahiko industriagune zen eta da, industriari babesarekin hasi ginen esku-lanekin; gero, erabat hazi gara*”. Produkzio-sare sakonean sarturik daude espezialitate desberdinetan, beraz. Dibertsifikazioa bilatu da eta ardatza aipatu 14 tailerrak izanik, zerbitzuak eskaintzearen erronkari heldu diote gerora: negutegiak, loragintza, garbiketa industrialak, plastiko injekzio eta eraldaketa, “Gupost” (publizitate zuzena), e.a.

Atzeratuen gizarteratzea

Atzeratuen integrazioa lortzea nahiko nekeza da. Ghetto antzeko batean



Joxe Mari Iruin zaldibitarra. Zuzendari-Komertziala.

leudeke, zaila da normalizazioa eta erlazio sozial positiboak edukitzea. Kanpoko lanarekin lortu dena jendea kalera lanera ateratzea izan da. Horretarako, produktibitate aldetik maila altua duen jendea hartzen da eta errentabilitate eta soldata handiagoak lortzen dira. Guzti hori oso positibotzat jotzen da.

Goierri gutxi samar sartu dira zerbitzu-mota hauetan. Beasaingo Udalerriko loragintzan ari dira. “Ordizian arazo administratibo-politikoak egon arren, Udalaren borondatea ikusi dugu”. Inguru honetan ere zerbait egitea inportantetzat jotzen du.

Oinarrizko zerbait eta kontutan hartzekoa: gaurko egunean, orain 15-20 edo urte gehiagoren aldean, gutxiengotu psikikoek badutela non sartu eta non lan egin. “*Nik uste dut, azken finean egin den lanik inportanteena gure jende hori denei lanpostu bat ematea izan dela. Lanpostua, kondizio berezietan*”, dio Joxe Mari. “*Gure lehentasuna behar luke izan, azkenean lantoki normaletan jartzea gure langile hauek. Azken pausu hori, momentuz utopia hutsa da*”, nahiz eta 20 bat atzeratu ari direla normal-normal “enpresa-normaletan”.

Gureak-eko langileak bi mailetan daude, “enplegu-berezia” deritzon, aseguru eta gutxieneko soldatarekin, eta “zentru-okupazional” deritzon horretan, janari eta bidaiez gain dirutxo bat irabazten dutela. Gipuzkoako Foru Diputazioaren subentzioak jasotzen

dituzte, "eskaintzen ditugun gizarte zerbitzuen truke moduan. Aldundikoak oso ondo portatzen dira", dio zaldibitarrek. Ordainetan, komenio merkea eskaintzen dute Babesturiko Tailerrak, hitzarmen ona beste lurraldeekin konparatuz. Enpresekin, berriz, azpi-kontratazio sistiman ari dira.

Aipatutako kontu guzti hauek, "Gureak"-en zerbitzu izpiritu eta bokazioa jartzen dute agirian nabarmen: "Guk ez dugu lanik egin nahi nagusiaren semea "Ferrari" batean ibil dadin. Bokazioa hitz gogorra iruditzen zait, baina egia da gustatzen zaigulako gabiltzala hemen, kezka baten fruitu dela hau. Gaur duda gehiago dago, agian jendea beste lan batetara bezala hurbilduko da orain. Igoal txarra ere ez da izango da azken fenomeno hau". Enpresari bokazioa aldarrikatu du Iruinek.

"Gure nolabaiteko terapia, integrazio-modua lan-mundua da. Gehiago lortuko dugu 60 edo 80.000 pezetara irabaztetik 200.000 irabaztera pasatzen direnean. Horrek ez du esan nahi beste lan batzuk egiten ez direnik. Autonomia pertsonalean lanean ari gara. Hori da gure protesta, eskoletatik orain arte ez dira etorri prestatuta. Itsasondon bertan, jendea ahoa garbitzen, bata jazten, zapaten lo-karriak lotzen, eskuak garbitzen, e.a. erakutsi behar izan da...". Edozein enpresarekiko

aldea, "Gureak"-era behinepein, jendea gustora doa lanera.

Dudarik gabe, gaia bizi dutela ikus daiteke garbi, osotasuneko helburuak kuestionatuz. Praktikotasunaren apostua egin dute erakunde horretako goi-karguek: "Ez da posible jende hau enpresa normaletan sartzea dauden legeekin; orduan tailerren beharrean gaudela". Gustatuko litzaieke nora begiratu izatea, baina Europar ez dute mirarik, eredurik ikusten. Bienbitartean, Estatutik hona begira daude: "Diotenez, Estatu mailan, erakunde dudarik gabe onena da Gureak, eta ez naiz astakeriarik esaten ari".

Foru-Diputazioaren eta bestelako erakunde eta enpresen lankidetzari esker eta baita eki-

Iruin:

"Gure jende honi bata jazten, eskuak garbitzen, e.a., erakutsi behar izan zaio"

pamenduan edota prestakuntzan egindako etengabeko ahalleginari esker, ikaragarri hazi eta ahalmenean eta fidagarritasunean oinarritutako irudi bat, sinisgarritasun bat gozatzen du "Gureak"-ek, 1.200 langileen muga gaitziteza posible egin diona.

Jon Arano



KORTA mariskeria

Etxeko haztegiak


Menu Berezia (2 pertsona gutxienez)

- ☐ Langostinoa ☐ Txangurroa
- ☐ Almejak ☐ Misera -
- ☐ Añares cava edo Antina horratzardoa -
- ☐ Postrea, kafea likoreak-

PREZIOA: 3.500 pta. (+ BEZ)

GABIRIA

Tfnoa: 88 71 86



DOMINGO UNANUE PLAZA, 4 • Tel. 16 06 66

ORDIZIA



BASTAKANA
TABERNA

Giro on eta jatorra

Tlf.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

**BODEGON
GOIERRI
JATETXEA**

Tlf. 88 00 00
Kale Nagusia, 20 BEASAIN

Erosle Ahizpak

*Aukera osoa
Zure etxe ondoan*

Nafarroa Etorbidea, 45 BEASAIN

Ostatua

ZERAIN

Tf. 80 17 99



- * ETXEBIZITZAK SALGAI ITSASONDON
- * SALNEURRI OSO INTERESGARRIAK

OTEGI

ERAIKUNTZA OROKORRAK

- * 100 ETA GEHIAGO M²
- * TXIMENETA, ANTENA PARABOLIKOA,
- BEROGAILU ISTALAKUNTZA EGOTIRUK. E.A.

Tfnoa: 88 49 36 ITSASONDO



SOLOZABAL
AUTOESKOLA
PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia
- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etxezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 — ORDIZIA

URBITARTE SAGARDOTEGIA

- Kostilla eta txuletetan espezialdua
- Enkarguak Ordiziako Eroskiko Tabernan.



Tfnoa: 88 83 31

ERGOIENA AUZOA. Tfnoa: 88 27 19 • ATAUN



Sagardotegia

aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66

LEGORRETA (Guipúzcoa)



Iturgintza -

Mendi-ondo Etxea
Tel. 88 40 57
20247 ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7 - Tel. 88 80 29
20200 BEASAIN

Burokraziarik ez Gaztetxean

GALDERA: Nahi baduzue iragana-ri buruzko aipamenen bat eginez hasi gaitzke.

ERANTZUNA: Beno, aipamen txiki bat egingo dugu, ze batez ere zer garen, zer egiten dugun eta etorkizuna nola planteatzen dugun, hor zentratuko gara. 6 urte hauei buruz berri, aipatzekoak dira batetik, oztopo guztien gainetik (batez ere kanpotik txarkeriaz prestatutakoak), Gazte Asanbladak irauteko duen gaitasuna. Bestetik, Asanblada bertatik eta helburu garbi batzuekin sortu diren hainbat eta hainbat aktibitate.

G: Zeuk esan duzue. Zer zarete? Zer egiten duzue?

E: Ba... oso sinplea da. Gaztetxe bat eta Gazte Asanblada bat gara, guzti horrek suposatzen duenarekin. Batetik Gaztetxea legoke. Lokal hau darabilkigu eta besteek ere beraien istoriotxoak (apariak, txapelketak, hitzaldiak, irakurketak...) egiteko erabil dezaketeela, errespetuz. Bestetik, Asanblada bera dago. Lokala, darabilkigunak biltzen gara (denak ere ez gara biltzen) eta ideiak batzen ditugu ondoren lantzeko. Batzordeak sortu ditugu: ekintzak, taberna, mantentzea, Udaletxearekiko harremanak, e.a. Edozein arazo fortunatu ezker bilera hauetan planteatu eta irtenbidea ematen zaio. Ahal den burokrazia gutxien izaten saiatzen gara.

Zer egiten dugun? Sinpleagoa oraindik. Bakoitzak baditu bere irrikiak eta gustoak eta hauen arabera antolatzen dira aktibitateak, beti ere Aktibitate-Batzordetik bideratuta. Hoberen dihoakiguna hau da, oraintxe. Goierriko Gazte Asanbladak bildu ginenean, aktibitateen helburuak argi ikusi genituen: drogomenpekotasunaren aurka borrokatzea eta gazteei beren aisialdirako aukerak eta aktibitate parte-hartzaileak eskaintzea, gaurregun dauden aukera kontsu-

mista eta indibidualistaren aurka.

G: Eta, nola ikusten duzue parte-hartzea?

E: (B) Bai, orain arte esan dugun guztiaren agian nahikoa tekniko da eta errealitatea ikusiz, praktikan desberdina dela esan daiteke. Gazte Asanbladan partehartzea aktibitateetan eta lokalaren erabilpena baino eskaxagoa da, eta gure helburuetariko bat da inguruan dabilkigun jendearen inplikazioa. Hobetu beharrean gaude.

G: Gizarte honetan, nolako gaztedia ikusten duzue?

E: Gizarte-molde kontsumista, pasiboa, indibidualista eta intsolidario honek guztioi eragiten digu. Guk ditugun baliabideekin zulo honetan ez erortzen saiatzen gara. Antolaturik gaude, herri honetako giza-arazoez arduratzen gara eta lokalak eta intereseko ekintzak ditugu. Neurri batean, gaurko gazteek duten "gaisotasun" horiek gaintitzea lortzen dugu. Arazo larri bat dago: elkartzeko interes-eza. Dena eginik ematen digute eta txarra gainera, laister Europan bezala! Udaletxean lau katu eta herritar mugimenduetan zortzi;



gainontzekoek, bakoitzak berea. Egoera honen aurrean, nola izango da ba Gaztetxea salbuespen bat?

Ordiziako gazte guztiek ikusten dute lokalen beharra. Batzuk ados daude Gaztetxearen funtzionamenduari. Beste batzuk aldatu egingo luke, baina errealitatean gutxi batzuek gara eguneroko lanarekin Gaztetxea egiten eta aldatzen ari garenak eta hau erresposabilitate handia da. Errezegi kritikatzeko zaigu: asko eta asko aitzakiak besterik ez dira eta guzti hau hobetze arren gazte guztiei zerbait aportatzea eskatzen diegu.

"Inguruan darabilgun jendearen inplikazioa dugu helburu"

"Taldean"

5 urte Gaztetxea sortu zenetik

(Doinua: Peñagarikanok Txapelketan erabili zuena)

Bost urte sortu zenetik
eta hor doa aurrera
pertsona batzun gogo eta nahiak
eman du(e)lako aukera
hamaika gauza egin ditugu
bere barnean gainera
lagunak han biltzen gera
jokatuz denak batera (bis)
bere barnean zer ote dagon
jakin nuenean ba zera
bertso batzutan zer e(g)iten degun
orain noa kontatzera.(bis)

Mahai batzutan jartzen gerade
lagun denak eserita
ajedrez, partxis edo musean
"jake-mate" ta "enbita"

galtzen duenak ping-pong-erako
irabazia du zita
musika dago jarrita
prestatzen dira hasita (bis)
kurtsilo eta rock kontzertuak
denentzako irekita
halako zerbait nahi bazenuke
egin zaiozu bisita. (bis)

Gaztetxetikan kanpo badira
hainbeste aktibidade
urtean behingoz txirinduarekin
kontent ibiltzen gerade
Agostinhoren memoriale
egin da jaun eta jabe
partaide asko dirade
inongo lotsarik gabe (bis)

eta mendia atsegin duenak
bere lekua du ere
urtean zehar egun batzutan
irtenaldiak bait daude. (bis)

Ahal den ondoen esan nahi nuen
Gaztetxean zer dagoen
gezurretako asmorik ez dut
egitaz dizut esaten
ea zerbaiten lagundu dizun
ta hasten zeran joaten
nik buka behar det hemen
jarraitu nahi nuken arren (bis)
Gazte-etxean zer daukagun
esan dizudanez lehen
esan zaidazu baldin badago
aukera gehiago nun den. (bis)

Igor Eguren

merka P 21 dendak



ASEGURU AGENTZIA
CARLOS RODRIGUEZ
CARDESIN

Goierrri, 12- Tfnoa: 16 14 15
P-21 Komertzialgunea, 2. oina

ORDIZIA



TXALUPA
ERRETEGIA


Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 ORDIZIA

IBAÑEZ

- ✓ Kafetegia
- ✓ Izozkitegia
- ✓ Gozotegia

C/Goiherri. Poligono 21-2º
ORDIZIA



- Telf. 16 12 59

Eraikuntzak
P. ARMENDARIZ

Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50



BRICORDIZIA

- BRIKOLAJEA
- ENMARKAKETA
- Eta zure ideiak ...

Goierrri, 21

TEL. 160416

ORDIZIA

CARRION
ELEKTRODOMESTIKOAK



BANATZAILE
OFIZIALA

Plaza Nagusia, 5
44 Posta Kaxa

(943) 88 13 33
20240 ORDIZIA

OHITURA ZAHARRA BERRITUZ KATE LANEAN

Lazkaoko Taloeegileen "sekretuak"

LAZKAOKO TALOEGILEAK duela bost urte inguru hasi ziren langintza honetan. "Antzar Gazteak" Txarangakoen gurasoek, Juntan, dirua biltzeko modua behar zutela-eta, ideia hau bururatu zitzairen. Harrez gero makina bat talo egingo zuten.

Lazkaoko festa haietan taloak egiten hasi eta "oso esperientzia polita izan zen. Parregarri hasi ginen, tanborrada zetorren Axundeitik behera eta gu Joxpiren etxetik gora suarekin tiriki-tarra-ka jendeartetik. A ze lotsa! Etxeko su txiki batekin eta batera esperientzi-gabe; ia ez genekien talorik egiten eta nola edo hala itxura eman genien".

Aurretik Andoni talo batzuk egin zen eta besteok (Mila, Maitere, Mari Karmen, Joxepi eta besteek), ama edo amonari ikusi bai, baina inoiz egin gabeak. Gauzak hain ondo ateratzen hasi zitzaizkien, ze lehen eguneko lotsak ahaztu zitzaizkiela. Hurrengo zita Egin Egunean. Benetako saioa hau izan zen; Lazkaoko festetan 20-25 kg. artirin erabili zituzten, EGINEKOAN 100 kg. Kezka, "Salduko al diñagu damakigun presu-pestua kubritzeko aña?", galdetu zioten elkarri. Arratsaldeko 4,30etarako Etxarri joan behar izan zuten txistor gehiagoren bila!

Esperientziarik ezean, urduri jartzen ziren lazkaotarrak, jendea zai ikusita. Kalkulatzen ere ez zekiten gaur egun bezala. Orain gehien Nafarroa Oinez-a daramagu: 125 kg. artirin, 90 kg. txistorra eta 4-5 kg. gazta eta hirugiharrea".

Euskara ibilbideak

Aipatu Egin eta Nafarroa-Oinez egunez gain, Ikastolen ospakizun guztietan, Santo Tomas, Santa Luzia eta Elosuako ferian (Goierriko zenbait ospakizunetan ere) ikusiko dituzue maiz. "Orain gertatzen dena da: Ibilaldia, Araba Euskeraz eta Kilometroaken oztopo pila bat ari zaizkigula jartzen. Ez dakigu zergatik, nahiz eta guk festari aportatu, txaranga eramanez, taloak eginez eta antolatzaileei diru zati bat utziaz, konpetentzizat hartzen gaituzte. Nafarroa-Oinezera sartzen gara eta Herri Urratsen, berriz, irabaziak han uzten ditugu, arazo ezberdina delako", diote. Hau ikusita, beste kanpo batzu bilatzen saiatu beharra dakusate.

Talo onenak

Haseran jendea, zer egiten zuten, zer traste zerabilten, e.a. begira zeuzkaten; "orain beste batzuk dabilta gure gisako tresneriekin eta ba-



dirudi goraka ote doan talo-jate-asuntoa". Jendeak dioenez, halere, inguruko talo hoberenak lazkaotarrenak dira.

Taloaren arrakastaren zergatiak berriz, "gaur egun jendeak etxean ez du jaten, oraingo sukaldeak ez daude prestaturik, kanpoan ikustean jaten du eta gainera estimazioarekin. Baina zartagian ere ondo egiten da taloa."

Jendea interesatzen dela dirudi, "batez ere egiteko eraz gauza asko galdetzen ditu, ze jenero erabiltzen dugun etab."

Sekreturik? "sekreturik bat ere ez, artirina ahal den onena ekarri, masa ona eginez, taloa mehe eta txukuna gauzatu, intentzio guzia jarritz". Beraien oinarria, nahiz eta gutxi eta lasai eman, be-

re puntuan, ondo egindakoa ematea da. Balentriek txapari neurria hartua dio eta taloa egin arte ez du ateratzen, zenbait jende haserretu arren.

Normalean jende berdintsua ibiltzen omen dute, batzutan laguntzera joaten den zenbait kenduta. "Taloa egiten zortzi pertsona badaude ez dira altxatu ere egiten, txapak emandako guzia hartzen bait du. Jende gehiago ere behar da taloak txapara eraman, saldu, etab. egiteko".

Kexaren bat ere badute "Antzar Gazteak Txaranga ez gara gu bakarrik eta beste gurasoei ere esango genieke esku bat bota nahi badute eskertuko genukeela. Gaur egun txaranga 24 haur bait daude eta ikasten beste 20-22".

Mikel Albisu

Zenbait pasadizo

- Nafarroa Oinez Etxarri egin zenean, han baino eguraldi okerragorik beste inon ez, toldoa lau zuhaitzen artean jarrita ittuteak eta guzti genituela. Antolatzaileentzat frakasoa izan zena, guk, berriz, gehiago eduki bagenu gehiago salduko genukeen.

- Beste batean berriz, Tuterako ikastolaren festa batera joan ginen autobusa alkilatutik txaranga eta guzti, ehun kilo artirin eta hainbat gauzekin. Ez genuen talo bat bere ere saldu! Eskerrak parre egitetik eman ziguna.

- Irungo Kilometrotan talo integralak egin genituen, konturatu gabe xehetu gabeko artirina erosi genuelako. Hala ere berdin jan zituzten.

- Nafarroa Oinez batean gizon bat denbora asko egon zen begira eta halako batean esan zuen "es la primera vez que veo hacer talos en serie".

Zer dira sexu arazoak?

Nork eduki ohi ditu?

Sexu arloko "ohizko" interes eta jarreraren alterazio iraunkorra da sexu disfuntzioa. Baina zer da ohizkotzat har dezakeguna? Horra hor kakoa. Interes eta errendimendua mugak horren subjektiboak direlarik, benetan zaila da "ohizkoa" edo "normala" zer den zehaztea. Dena den, zalantzarik gabe, norbaitek sexu arazorik duen jakiteko, ezinbestekoa da norberak bere buruari eta bere bikoteari buruz duen iritzia ezagutzea.

Garai batean inpotentzia eta figiditatea terminoak emakume zein gizonengan gertatzen zen edozein arazo edo disfuntzioz hitzegiteko erabiltzen

ziren. Gaur egun, sailkapena askoz ere sakonagoa da. Gizon-emakumeen sexu arazorik aipagarrienak honakoak dituzte:



Sexu-desira inhibitua (hipoaktiboa):

Sexuarekin zerikusia duen edozein garezarekiko interesik eza. Arazorik ohizkoena da, nahiz eta 70. hamarkadararte garrantzirik eman ez. Ekintza bera egiteko gogorik ezaz gain, masturbazioa, eta sexuaren inguruko pentsamendu eta fantasiarik ez edukitzea ere, sexu-desira inhibitutzat har daitezke. Bikotea edo norbera bere buruarekin ondoezik sentitzen denean har daiteke trastorno hori benetako arazotzat.

Sexu arloko fobiak: Fobiak gauza zehatzen ingurukoak izan daitezke (zakila edo hazilikidua ukitzeari fobia), edo baita orokorragoak ere, joku erotikoari fobia, esate baterako.

Sexu-eszitazio arazoak: Majina zabaldu eta lubrifikatze arazoak, eta sexu eszitazioarekin lotutako sententziarik eza.

Sexu-eszitazio arazoak: Majina zabaldu eta lubrifikatze arazoak, eta sexu eszitazioarekin lotutako sententziarik eza.

Zutitzearen disfuntzioa: Erabatekoa edo zatikakoa izan daiteke. Ereizioa lortu bai, baina koitoa burutzeko behar bestekoa ez, edo iraunkorra izan baina berehala makaltzen dena. Gizonik gehienek horrelako arazoren bat izan dute noizbait, eta gutxienez erdiek, behin baino gehiagotan izan dituzte. Sexu harremanen %25ean gertatzen denean hartzen da benetan disfuntzioztat. Aipagarria da gizon batzuren egoerak duen eragina, izan ere, zenbait egoeratan (ezkontzaz kanpoko harremanetan esaterako) ereizio zuzenak lortzen bait dituzte, eta beste batzutan, berriz, (ohizko bi-

kotearekin) ez; beste batzuei alderantziz gertatu ohi zaie.

Disfuntzio orgasmikoa: Anaorgasmia era askotakoa izan daiteke. Inoiz orgasmorik izan ez duten emakumeek izaten dutenari deitzen zaio 1. mailako anaorgasmia. 2. mailakoa, noizbait izan bai, baina bere bizitzako uneren batean jadanik orgasmorik ez duten emakumeek dutena da; orgasmoa egoera jakin batzutan bakarrik izaten denean egoeraren arabera anaorgasmia dagoela esan ohi da; eta noizbehinkako anaorgasmia, berriz, orgasmoa egoera desberdinetan, baina gutxitan izaten denean.

Ez dugu ahaztu behar sexu harremanetan orgasmorik ez lortzeak ez duela derrigorrez arazo izan behar; emakume guztiek ez dute orgasmorik lortzen beren sexu harreman guztietan, baina horrek ez du esan nahi sexu arazoak dituztenik. Maiztasuna oso txikia denean eta horren ondorioz bere buruarekin gustora ez dagoenean edo egoneza sortzen zaionean soilik esan daiteke noizean behin orgasmoa

izaten duen emakume batek benetako arazoa duela. Kontutan izan behar da askotan ez dela aski koitoak sortzen duen estimuloa emakume batek orgasmoa lor dezan; izan ere, emakume askok estimulo osagarriaren bat behar bait dute, klitori estimulazioa esaterako.

Isurketa goiztiarra: Ez dago termino horren definizio erabat zehatzik. Isurketa edo eia-kulazio goiztiarra oso ohizkoa da gazteen artean beren lehen sexu harremanen orduan. Gero, kontrolatzeko gaitasuna gehituz joan ohi da. Garai batean, isurketa goiztiarra noiz zen jakiteko iraupena edo mugimendu kopurua hartzen zen neurritzat, eta esate baterako koitoak bi minutu baino gutxiago irauten batzuen, edo orgasmoa lortzeko behar beste irauten ez bazuen, goiztiartzat hartzen zen. Gizon batek isurketa goiztiarra aditu batzuren iritzi, isurketa behar bezala kontrolatzea edo ez kontrolatzea da kontutan hartu beharrekoa, bai eta, adina, koitoaren maiztasuna eta beste hainbat faktore ere.

Isurketa berantiarra: Edo isurketaren in-

TRASTORNOA	EMAKUMEENGAN	GIZONENGAN
Sexu-desioa	Desio hipoaktiboa Abertsio sexuala	Desio hipoaktiboa Abertsio sexuala
Sexu eszitazioa	Eszitazio trastornoa	Zutitze-trastornoa
Orgasmoa	Orgasmo inhibitua	Orgasmo inhibitua Isurketa goiztiarra " berantiarra
Sexu arloko mina	Dispauremia Baginismoa	

hibizioa: ez dira nahastu behar isurketa berantiarra eta atzeranzkoa, bi termino desberdin bait dira. Semena puxika barrura isurtzen denean esan ohi da isurketa atzeranzkoa dela.

Baginismoa: Koitoak min handia egiten dio emakumeari baginako sarrera inguratzen duten muskuluei nahi gabe gertatzen zaien espasmo edo kontrakzioen ondorioz.

Dispauremia: Koitoak dirauen bitartean mina sentitzea.

Sexu arazoei buruzko zenbait gorabehera

Sexu arazoei buruzko inkestak egitea ez da lan erraza. Batetik, arazotzat har ditzakegun horiek definitzea zaila delako berez, eta bestetik, jendea asko kostatzen zaiolako gai horren inguruko galderei erantzutea, eta erantzuten

ten dutenek ere, lotsa eta jarrera ezkorrek eraginda erantzuten dutenez gero, erantzunak sarritan ez dira errealitatearen islada izaten.

Inkosten arabera, itxuraz behintzat zoriotsu diren senar-emazteen artean, gizonezkoen %40ak eta emakumezkoen %63ak disfuntzio sexual bat zuten gutxienez. Arazo horien artean %48ak eszitatze eta %46ak orgasmoa lortzeko arazoak zituzten, eta %15ak ez zuten inoiz orgasmorik lortzen.

Gizonen kasuan isurketa goiztiarra da gehien aipatzen den arazoa, %36ak era horretako arazoak omen ditu; %7ak erektzioa lortzeko, %9ak erektzioari eusteko, eta %4ak isurketa arazoak zituztela adierazi zuten. Emazteen artean, %77ak, eta senarren %50ak erlajatzeko arazoak, koito aurretiko joku erotikoko gutxi, gogorik eza, eta era horretako arazoak zituz-

ten.

Gai hori aztertu asmoz egin diren galdeketa guztien emaitzak bilduz gero, argi eta garbi da go sexu arazoak oso ohizkoak direla. Inkosten arabera emakumeek arazo gehiago izan ohi dituzte, eta gehien agertzen direnak gogorik eza eta eszitagarritasunaren ingurukoak izaten dira. Emakumeen %10ak orgasmoa lortzerakoan porrot egiten duela aitortu zuen. Gizonezkoen %40ak disfuntzioaren bat du, %10 inguruk zutitzearen disfuntzioa izaten du, eta zenbat eta zaharragoa izan are eta arazo gehiago. Gizonezkoen %4ak isurketa berantiarra, eta %30ak noizbait isurketa goiztiarra izan dutela adierazi dute.

Zerraila

(Sexu orientabide zerbitzua)

Ordiziako Santanak, goierriar



santu-festa guztiak
eta udako oporrak
"santu-santu"
ospa ditzazuela
opa dizue

GOIERRITARRAK!

AMAI

Edergintza

Santamaria Kalea, 22 ORDIZIA. Tfnoa: 88 63 20



EKIPOEN INJINERUTZA TEKNIKO ET AL.
AUTOMOZIOZAKO MAKINERIA, S.L.

Tfnoak: 16 10 40
16 10 64
16 06 05
Faxa: 16 04 72


Mallutz, 3. blokea, 2.
edifizioa.
20-21 lokalak
20240 ordizia



Ofi-Gamar, c.b.


ALUMINIOZKO METALISTERIA

11etatik aurrera



Domingo de Unanue, 5
Tel. 88 90 98 ORDIZIA

Modaren azken
joerak



leapaindegia

Ordizia, 4 • Goen 1 • Tfnoa: 88 86 55 • 20240 ORDIZIA



SEGURO TALDEA

ZURICH-VITA-HISPANIA

Eduardo Martinez Alvarez

Alta Urdaneta, 10 Behea. • Tfnoa: 88 10 71 • ORDIZIA

KLARATXO

Jostailu denda
Joku didaktikoak

Santa Maria, 39 • Tfnoa: 88 92 47 • ORDIZIA



auto-eskola ORDIZIA

LA UNION Y EL FENIX ASEGURAOAK

Padre Urdaneta, 10
Tfnoa: 88 72 76

ORDIZIA


ARALAR

PAPERDENDA

- Bulegoko tresneria
- Ikastolako Materialak
- Idazteko makinak
- Fotokpiak
- Koadernaketak

J.M. Barandiaran Enparantza, Tel. 88 12 40 20240 ORDIZIA

KIRKIL



ORDIZIA

FEDERAZIO-KOPA IRABAZI ZUTEN, TOLOSAKO "SHANTI" GAINDITUZ.

Ordiziako Taldean Goierriko neskak, Areto-futbolean

Ordiziako futbol-talderik garrantzizkoenak ez ditu bere jarraitzaileak gehiegi gozatu. Baina neskek, ordea, eman dute pozbiderik, Ordizia Kirol Elkarteak Aretoko-Futbol Federazio-Kopa ekarri bait zuen etxera Tolosako Shantiri irabaziz. Eraitza (3-1) goierritarren alde.



*Goierrin oraindik askok ez dakite Ordizian neska-talde bat futbolean ari denik
(Arg: J.Marin)*

Oztopoak oztopo, talde honek aurrea egin du aurren eta aurrerago egiteko asmoa du gainera. Taldean, izas-kun Ezkurra, Olatz Bereziartua, Ane Dorronsoro, Josune Amondarain, Veronika Casado, Doltza Begiristain, Silbia Morales, Sorkunde Arze eta delegatua Julen Urrutia dute. Gurekin izan ziren taldeko lau jokalarik: Doltza, Beronika, Ane eta Sorkunde. Eskarmen-tu handiko neskak, urteak bait dar-matzate baloiari ostikoak ematen.

Halere, titulua eskuratzea zaila izan zela adierazi zuten: "Arazoak iazko denboraldian hasi ziren, entrenatzaileak taldea utzi egin baitzuen (Jokalariek ez zekiten oso argi zergatik). Keltxo pub-ak ere ordura arte emandako babes-a ukatu egin zion taldeari. Eta entrenamenduak gure kontura egin behar!", dio Beronikak.

Gauzak horrela, Emilio Ortiz entrenatzaileak hartu zuen taldearen ardur-a: "Behin Sorkunderekin egin nuen topo, entrenatzaile zatorrela esan zidan, polikiroldegitik, entrenatzaileak ez zutela, bi edo hiru neska joaten zi-rela entrenatzera, beren kasa. Hau ikusita, neure burua aurkeztu nien, eta beraiek ados zeudenez, entrenatzen hasi nintzen".

Entrenamendu eramangarriak

Dena dela, galdutako denbora nabarmendu zen haserako entrenamen-dutan. Neskak ez zeuden gorpuzkera-rik onenean, makal zebiltzan, eta ho-

rregatik entrenamendu gogor bezain jasagaitzak burutzen zituzten.

Gainera, hasieran 7 jokalarik besterik ez zeuden, eta 7 lagunekin ez dago miraririk egiterik entrenamenduetan. Esaterako, futbolean estrategia era-biltzen da aurkakoa gainditzeko, baina horretarako estrategia-modu horiek entrenamenduetan landu behar dira... Silbia jokalarik berriaren etorrerak ez zuen ezer konpondu.

Hala eta guztiz, alde onak ere ba-daude. Ordiziako instalakuntzak ikus-tekoak dira; hala dio Emiliok: "Alde horretatik behintzat ezin keitzekorik izan, polikiroldegi gutxi dago hau be-zain ederrik. Kontuan hartu beste tal-de batzuk non dutxatua ere ez dutela".

Taldea ez dela oso ezaguna eta, ikuslegoa nolakoa den galdetu diegu-nean zera erantzun digu entrenatzaileak, taldeak ez duela inolako diru-ba-besik, eta horregatik agian ez duela azken-era arte jakin estalpeko futbolean ari den neska-talderik dagoenik jendeak. Beraz, zalegoa nesken eza-gunek, futbolzaleek eta denbora-pasa joaten direnek osatzen dute.

Gipuzkoako hoberenak

Jokalarik hauen maila ezagututa, Gi-puzkoa estalpeko futbolean gurea zein den jakin nahi izan dugu. Eta Gi-puzkoatik kanpo ez omen dago oso finkatuta, Bizkaian, adib., ez dago talderik. Estatuan, Galiza eta Kantabrian

daude. Dena den, talderik indartsue-nak Gipuzkoan ditugu, eta horrenbes-tez, baita txapeldunak ere: "Gure mailan, egia esan, bi edo hiru talderekin izan dezakegu lehia. Besteak erraz gainditzeko ditugu. Horren adibide da Sanpedrotarrekin jokatu genuen adis-kidantzako partidua. Pili Legarra ordi-ziarrak jokatzen du hor... Ez genuen partidua hori irabazterik izan, baina gal-du ere ez", dio entrenatzaileak.

Areago doa Emilio: "Taldea honek ez du "Ohorezko Liga"n dabilen edono-ren aldean enbidia izateko motibu-rik, ez gorpuzkeran, ez teknikan". Ha-lere, jokalariek harridura-aurpegia jar-tzen zuten Emilio horrela hitz egiten entzutean. Honek, bere arrazoiak in-dartzeko Ane jartzen du adibide: "Ane defentsa-lanetan ibiltzen da, sasoi ederrean dago, eta finaleko egunean Gipuzkoako selekzionatzailea berari buruz ibili zen galdezka, selekzioaren entrenamendura joateko alegia". Zorit-xarrez, nahigaberen bat gertatu eta jo-aterik ez zuen izan. Emiliokitsu-itsuan uste du, Ane mutila balitz, futbola izango lukeela lanbide.

Jokalariek ezaugarriak

Neska hauek futbolean aritu aurretik beste kirola batzuetan ibili dira. Doltza eta Beronika, esate baterako, saskiba-loian. Zelaiko futbolean ez bezala, aretokoan jokalarik bakoitzak bi-hiru funtzio bete behar izaten ditu parti-duan, batzuetan aurrean, bestetan at-

zean e.a. Ane, Doltza eta Beronika dabilta horrela gehienbat. Doltzak, esate baterako, edozein lekutan joka dezake, eta Sorkunderekin batera, gol-mordoska sartzen du. Askotan zulatzen dute aurkarien atea, 84 gol sartu baitituzte 21 partiduetan. Bitxikeria bezala esan, Doltza eta Beronika Real Madrid eta Bartzelonaren zaleak direla, "eta Errealarenak, noski" gaineratzen du Anek.

Datorren denboraldia

Lau ordiziar, bi lazkaotar eta zaldi-biar eta legorretar bana daude talde honetan, eta dagoeneko hurrengo

denboraldirako helburuak finkatzen ari dira. Bi jokalar berri etorriko dira: Estitxu eta Ainhoa. Euskal Ligara igo nahi dute. Horretarako entrenamendu gogoragoak egin beharko dituzte, eta diru-babesa lortu. Asmo horrekin ari da Ordiziako Udaletxean kirolaren ardura duen Lariz lanean. Agian, datorren denboraldirako aseguru-etxeren baten laguntza izango dute horrenbeste merezi duten neska kirolzale gazte hauek.

Jesus M. Munduate

Jon I. Iturrioz

"2-3 talde kenduta, gainontzekoek ez dute mailarik gurekin lehiatzeko"

• Harrebitik

ORMAIZTEGI KIROL ELKARTEAREN ARRAKASTA

Eskubaloit taldea nazionalaren 2.era datorren urtean

Ormaiztegi aldetik kirol mailako berri oparoak datozkigu. Neke handiz, baina denboraldi hasieran helburu zen urratsetako bat bete dute: 1. lurraldeko nazionalaren 2.era igotzea. Orain bi denboraldi zuten mailari heldu diote beraz, OKE-tarrak.

Liga erregularra ez zen inongo zailtasun izan "ormaizti" arrentzat, partidu guztietatik bat galdu eta beste batean enpate egin bait zuten soilik. Baina igoera fase hasieran ez ziren gauzak ongi joan. Bi talde arabar, bi bizkaitar eta beste talde gipuzkoar batekin seiko taldea osatu zuten, igoera bi talderentzat izango zelarik

bakarrak.

Gauzak, pil-pilean, azken partiduan eta kalkulagailuaz erabaki ziren. Ormaiztegi eta Urdaneta bizkaitarra 2. nazionalera. Hurrengo urtean, Ormaiztegi Kirol Elkartea Goierriko eskubaloit maila hoberenaren erantzule izango da. Zorierik onena opa diegu. Zorionak, "oke"!

O.K.E. Taldea: Iñaki Perez de Albe-



niz, Dunixi Murua, Koti Elozegi, Aitor Oñatibia, Iñaki Leturia, Ion Aldanondo, Agustin Elozegi, Iosu Baile, Mikel Esnaola, Jose Manuel Elozegi, Imanol Leturia, Ioseba Peralto, Juan Karlos Diez. Entrenatzailea: Iñaki Ambrosio.

Bi lerrotan

➡ Erabakia Europako Igeriketa Batzordeak hartu zuen: Ordiziako Gabonetako Nazioarteko Igeriketa Proba, 1993tik aurrera Europako kalendarioan sartuko da. Egutegi hori hain berezia izanik, europear igerilari hoberenak etorri beharko duten itxaropena dago.

➡ Azkenean!, eta "Play-Off"-a jokatu ondoren, GOIERRITARRAREN 25. genion bezala, Beasaingo Futbol Talde nagusia 2. Dibisioko "B" mailara igo da lehen aldiz bere historian, guk dakigunez. Zorionak, beraz.

➡ Amaia Andres, Ordizia Kirol Elkarteko korrikalaria beasaingarria, jokatze dabil bere markak hautsi beharrean, Olinpiadetan parte hartzeko asmo eta helburuekin. Posibilitateak ba omen di-



Jokin Mujika

tu...

➡ Ordiziako igerilarien entrenatzailea den Joxetxo Elkorok ez du esperantzarik galtzen. Uste du bere esane-

tara dabilen Maider Gaztañaga, ordiziar igerilaria, laster ikusiko duela haundien artean, orain ezpada hemendik bi urtetara, Munduko Txapelketan.

➡ Xabier Aldanondo, beasaingarri-tako segurar txirrindulariak, ONCE taldean korritzen du. 3. Giroa egin berri du, sabeleko arazoak zituela. Bere ekipoa, motibaziorik gabe ibili bide dira, gidari nabarmenik ez zutenaz.

➡ Ezaguna da Jokin Mujika itsasondar korrikalaria ekiporik gabe geratu zela CHCS taldea utziz geroztik. Errepideko txirrindularitza erabat uztekoan ote zelakoa ere esan zen. Baina lehengo bideetara bueltatu da gure Jokin Artiach taldearen eskutik. Emaitzak behar ditu kontutan hartuko badute eta izango al du onik. Berorixe opa diegu!

Patxi

ERRETEGIA

Tfnoa: 80 15 75

LIERNI

LELAR

KRISTALDEGIA

Erakunde eta merkatalguneen
Kristal ezarrazteaz - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tfno: 88 60 70
BEASAIN

UTOESKOL
ARALAR

Urdaneta, 64. Tel. 881651. 20240.ORDIZIA (Gipuzkoa)

GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 B E A S A I N



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99

Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Masajista
Tituludunak

Minaz ez egon

axis

Aurrez
dei
ordua
hartzeko

KIROMASAIA

Goierri kalea, 6 behera - Tel. 16 04 47 20240 ORDIZIA

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta Erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.
Telef. 88 05 43 BEASAIN

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K , C . B .



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.

Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

POZIK JENDEA DANTZAN JARTZEAREKIN,
"IZAL"GO TRIKITILARI JUERGAZALEAK:

"Gogoa dugulako jotzen dugu"

Idiazabaldarrak dira hirurak. Aitor Goiburu (bertsolariaren iloba), Mitizarko Joxe Mari Irizar, eta Xabier Lizarralde, (Atxisain, baserritarra). Lehenak soinu eta panderoak azken biak. Auspoa dantzatzeaz aparte, bertso eta koplak botzen ere badakite. Non-nahira joateko prest daukazue.

Trikitia gustatu, beti gustatu izan zaie. Trikiti giroa aparta da "Izal"en. Tradizio direnak ere hor daukate, Benta-txiki eta beste. Segida ere badu usadioak: trikitilari eta panderojole onak daude gaur egun Idiazabalen. "Gaztetan Albitu baserrira joaten ginen, hango Joxe Lui-xek soinu jotzen du eta nik beti panderoari heltzen nion. Ez nuen asmatzen, baina bannuen lagun bat, Collado, badakiena. Hortik zertoren afizioa", dio Mitik.

Hasi, Billabonan hasi ziren Atxi eta Miti, Martinen Eskolan, hilabete batzutan larunbate-tan joaten zirela. Baina egun batetik bestera ez ziren juntatu. Egun batetan herriko festetan, Sanblasetan, jotzeko eskatu zieten. "Jo eta gustatu eta kriston juerga bota genuen. Gertatzen dena da, nahiz eta ondo pasa, soinuak asko lotzen duela. Denok oso gustora gelditu eta panderoa jotzen ikasi behar zutela bururatu zitzaion Atxiri. Buru berotu zidan...", dio Mitik.

19 urte dituen Aitor juntatu eta gero hasi ziren, lardaskeatzetik utzi eta ondo jotzen. Azken hau 11 urterekin hasi zen soinu ikasten; Arrasaten Injinaritzan hasi zenez geroztik utziak zituen ikasketak, nahiko ikasia zelakoan.

Afizioagatik

Ia hirukotea osatu dute; eskolan oinarriak hartu eta *soltorea* hartzearen, etxean saioak egiten hasi dira; "aitun poderie" falta eta, zer okurrituko?: "ordu bi astean behingo ostiraletan afari koxkor bat egiten hasi ginen, ontzen hastearren, "Jeolimonean". Jesusen festak montatzen genituen, jendeak dantzari majo egin eta guri ere gustatu", dio Aitorrek.

Konpenetratzen hasi dira, soinuak ze piezak jotzen zituen ezagutzen hasi panderozaleak, eta dena hobetu zen. "Inportantea afizioa da, bestela ezin zaitezke ezertan hasi", diote ahobatez. "Lagunartea oso inportantea da, nahiz ez kobratu. Beste batzuetan joaten zara ordainduta, baina konturatzen zara jendea kieto dagoela. Alferrikako lanean ari zaren susmoa duzu. Ahal duzuna egiten duzu, eta gaizki ateratzen bada, jendearen erantzunik ez bada, ez da zure erantzunkizuna".

Afari eta horrelakoetan, berriz, jendea hobeto portatzen da eta piezen eskaerak daudenez, giroa bideratzea beste lanik ez dute soinu-joleek. "Askotan etxean aritzen zara pieza zail bat prestatzen eta gero ez du hainbesteko arrakastarik. Beharbada, jendeak ez du ulertzen piezak duen zailtasuna",

dio Aitorrek. Serioegi jotzen duela esaten diote berari, baina hori kontzentrazio beharri zor zaio eta ez beste edozer gauzari.

Ahal duten ondoen jotzen dute, ontzat dauka jendeak, eta GOIERRITARRAKOOK ere frogatu genuen hori Ordiziako Gaztetxean. Errepertorioan, porru-saldak, fandangoak, ariñ-ariñak, mejikanak, baltsak, agarrauak, eta batez ere euskal abesti herrikoiak: Pantxoa eta Peio, Benito, ... "Jendeak abesten dakizkien kanta ezagunak. Jendea horiek kantatzen ikustean, pieza horiek jotzeak merezi zuela konturatzen zara. Dantza egiteko balio dute gainera, giro jator bat sortzen dute. Gauza modernoagoak jotzen saiatzen gara, baina ez dugu rock-ik egiten, jakin egin behar du-eta".

Juergazaleak, seguru!



Irizar, Goiburu eta Lizarralde
(Miti, Aitor eta Atxi)

Dagoeneko saio batzu eskaini dituzte, eza-gunagoak egiten ari dira: Altsasuan pare bat aldiz, Seguran afari batetan, Asteasuko sagardotegian, famili batetako afari batean ere bai... Aitor: "Egoera guztietara moldatzen gara. Ordiziako koadrila-egunera deitu izan naute azken bost urteotan. Santotomas egunean ere joanak gara Donostira, eta ez inork kontratatu gintuelako, guk hala nahita baizik: bakarrak ginen eta izugarritako giroa sortu genuen..."

Gogoa daukatelako jotzen dute. Ez daukate kontratazio beharrik, derrigorrez, alegia. Jendea dantzari jartzearekin pozik. "Kobratu ere gustora kobratzen dugu, soinu ikastea ere kosta zitzaigun, baina beno, afari-truke ere joaten gara. Behinola, batek esan zien trikitilari ona izateko, juergist izan behar dela bat. "Ez dakigu trikitilari onak izango garen, baina juergazale, seguru!"

Iritziak eska hasita, trikitixaren gorakada garaia pasa delakoan daude, beheraka dihoala esatera ez dira ausartzen, baina estankatu dela, igoal bai. Gora-gora egin dezaten baino lehen, hona hemen Irizar eta Goibururen telefonoak: 801778 eta 801569. Ondo pasa!

Mikel Aramendi



"Gudari" Una pasión útil
Eli Gallastegi (1892-1974)
Jose Mari Lorenzo Espinosa
 Orreaga Saila. Txalaparta.

Harrigarria bada ere, orain arte ezer gutxi izan da Eli Gallastegitaz genekeina. Gerra aurreko abertzaletasun-mogimendurako hain garrantzitsua izan arren. Sabino Aranaren abertzaletasuna bide modernoetatik eraman nahi izan zuen Gallastegik.

"Aberri" aldizkariaren sortzaile eta bultzatzaile, "Mendigoxale Batza", "Jagi Jagi" eta "Patria Vasca" elkarte eta aldizkariaren sortzaile eta anima. "Por la Libertad Vasca" liburuaren egile. "Emakume Abertzale Batza"ren dinamizatzaile, emakume abertzaleak ekintza politikoa parte hartzera lagunduaz, Euskal Fronte Nazionalaren teorizatzailea, estatutismoaren aurrean independentismoa defendatzen zuena, karia handiko buruzagia Errepublikaraiko gazte abertzaleen artean, lehenengo 1932.go Aberri Egunaren anto-

latzailea, eta, agian, asmatzailea...

Guzti hori eta gehiago izan zen Eli Gallastegi, "Gudari", Bilbon jaiotako abertzalea, PNVEk Espainiako gobernuak maiz ankartean eduki zutena, zazpi alditan preso eta bi bider herbestera (Irlandan eta Hego-ameriketan), euskal abertzaletasunaren lehenbiziko gose greba egin zuena (1925.ean, Primo de Riveraren diktadurapean, poliziak bilera batetan atxilotu zuen Ordizian. Gerora Zumarragan bizi eta lan egin zuen).

Eli Gallastegiren biografia eta pentsamendu politikoa tartekatzen duen liburu honek, behar-beharrezko erreku-perazio-historikoa egiten du, neurri txiki batean behintzat. Barka ezinezkoa da Gallastegi ahanzia izatea. Merezi du.

Ramon Ugalde

• **Euskara bera.**

"Villafranca" gaztelaniaz: "Gabiria" euskaraz?

EUSKALDUNOK zaletasun handia agertu ohi dugu hitzen etimologiaz (hitz batetan zein elementu sartzen diren jakitea). Baditu bere alde onak zaletasun horrek; bere arriskuak ere bai.

Goiherri bada herri bat "Villafranca" izenekoa. Bada beste bat "Gabiria" izenekoa. Bi izen horiek ba ote dute kidetasunik? Ez ote dira gauza bera: bata gaztelaniaz, bestea euskaraz?

Zer esan nahi du "Villafranca" izenak? Hona. Euskal Herrian, Europa osoan bezala, Erdi Aroaren azken aldera, XIII. eta XIV. mendeetan, hiri asko fundatu ziren erregeen babespean. Horrela: Villafranca, Villarreal, Segura...

Beste horrelako izen askok bezala, Villafranca izenak ere ba ditu bere kidekoak Europar zehar:



Villefranche, Friburg, Freetown...

Zer adierazten dute izen horiek? Hauxe: horrelako hiri horiek, inguruko beste batzuek bezala, petxa edo zerga-kontuan pribilegio batzu zeuzkabela. Gaztelaniaz, Villafranca izenak horixe esan nahi du: "Villa franca o libre o exenta de pechas" (euskarazko petxa, edo zerga edo kontribuzio).

Eta euskaraz nola esan kontzeptu hori? Nola esan "villa exenta de pechas"?

Zergatik ez honela: "zerga gabeko hiria"? Eta laburtuz: "gabeko iria"? Eta laburragotuz: "gabiria"?

(...) Goiherriko "Gabiria"

izeneko herriaren historiak ere indartu egiten du hipotesi hori. "Gabiria" izenaren lehen dokumentua, 1399koa da. Dokumentu hori erregearen erantzun bat da: petxarik eza eskatzen zioten herri batzuri emandako erantzuna, hain zuzen ere.

Urte batzu lehenago, 1384ean, petxagabeko Segura hiriarekin bat egin zuen Gabiriak. Hurrengo mendean, berriz, Aleria alkatego pera pasa zen. Azkenik, 1661ean, erregearen pribilegio berezi bati esker, aparteko hiri bezala eratu zen Gabiria.

Datu guztiotan, hari jarraiki bat ageri da: zergatik gabe egoteko Gabiria herriaren ahaleginak. Ez ote du horrek herri honen izena justifikatzen? Hor dago hori. Hipotesi hutsa. Baina, bere itxura duena.

Bada beste hipotesirik ere Gabiria izenaz.(...)

Xabier Kintana

(Goiherriko Euskal Eskolaren "Alfabetatzeko I"

—Lazkao,79—tik hartua)



OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

HARLORE BITXITEGIA

Apaingarriak

Domingo Unanue Pl.2. Tfna: 88 96 17

ATERPE TABERNA

KULTUR ERAKUSKETAK
EGITEN DIRA

*Jai Zoriontsuak
opa dizue*


Tfnoa: 88 46 66

BEASAIN

JAUREGI TOLDOAK s/l

Telefonoak: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN



Gudarien Etorbidea, 4
Tel. 888511

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)

T	▲	A	☐ OFIZINARAKO MATERIALA ☐ ESKOLARAKO MATERIALA ☐ OPARIETARAKO ARTIKULUAK
M	PA	A	
Y	PEL	O	

Amerika, 2. Tfnoa: 88 89 80 20240 ORDIZIA

Zer nahi hura:

PINTXOTAN: denetik
OGITARTEKOAK
BAZKARI eta
AFARIAK

880035



Kawasaki YAMAHA


SUZUKI HONDA



ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03



ondoeta


HALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxe: 880872. 20249

ITSASONDO

"TXIKIA"ren BERTSO ETA OLERKIAK ARGITARA DIZKIGU "SUSA"k

Iraungo du Eustakio Mendizabalen "Hitz Etena" k



Eustakio Mendizabal "Txikia"

Adin bateko goierritar gehienok dakigu, gutxi-asko, zein izan zen Eustakio Mendizabal "Txikia" itsasondorria. Euskal Historia berriko mitotzat joa izan da. Ekintzaile jantzi eta talentuko gizontzat eduki ohi dugu.

Hori berrestera dator "Susa" argitaletxeak liburudendetan salgai jarri duen "Hitz Etena" liburua. Diktaduraren garaiko ekintzailearen itzalean idazlea ere bazela erakustera datorrena. Eta a ze idazlea gainera!

Euskararenganako zaletasuna Lazkaoko Komentuan beneditar gazte zela piztu zitzaion Mendizabali. Euskaltzale eta olerkari izan zen lehenik beraz, eta hori frogatu nahi izan dugu liburu horren prestatzaileok.

Aurkikuntza

"Galdutako" koaderno batzuk aurkitu genituen. Bi olerki koaderno eta beste sei bestelako. Gau-pasa batean idatzi genituen ordenagailuan olerki guztiak. Izugarritzat dauzkagu oraindik: 47 olerki eta bertsoetatik erdiak baino gehiago goi-mailakoak dira gure ustez.

Erazena egina zegoen: datuak bilatu eta konfrontatu behar ziren, elkarriketak egin bere garaiko jendeari (famiariakoak, "Txato" Agirre, Juanita, Benito eta Dionisio Amundarain, Mikel Azurmendi, Rufino Mujika, Santi Onaindia...); biografia, sarrera afektiboa, goierritar eta euskal letrei Mendizabalek egiten dizkion aportazioak aitatu, haren lana kontutan hartua izan dadin botuak egin, bere poesiagintzaren norabideak apuntatu, kultur gizonak Lazkaon hartu zuen formazioa eta Euskadi Ta Askatasunako militantearen akzio politikoa esplikatuz...

Izan ohi da beti ere Goierrin idaztera emana ibili den jenderik. Iztueta, Gerriko eta Lardizabalez geroztik izan dira, besteak beste, Iñaki Otamendi, Anjel Sukia, Manuel M. Apalategi, Gurutz Sarasola, Anes Arrinda, Gabino Murua, Isidro Baztarrika, e.a. Eustakio Mendizabal azaldu zaigu orain eta bere garaikideen zakuan sartu beharko genuke: Joxe Azurmendi, Xabier Azurmendi, Txato Agirre, Joseba Intxausti, Mari Karmen Garmendia, Andoni Sarriegi, Felipe

Barandiaran, e.a.-ekin. Gero gerokoak.

Liburu hau ulertzeko giltza "etena" hitzean datza. "Txikia"ren hitza etenduarazitakoa izan bait da. Literatur eskola zaharrenekin eten eta gerora poesia soziala eginez aurrelari bezala agertzen bait zaigu. Euskara-etena, ze nahiz eta lehenagoko euskararen idatzi bazuen ere bere produktioaren muina eta gehiena, gerora euskara batua ezagun dugun honetara hurbiltzen baitzaigu. Olerkari izatetik poeta izatera pasatzen zaigu, Lazkaon idatzitakoetatik abiatuta, Iparraldeko ihesaldian paratutakoak oso bestelakoak baitira. Pake-etena, jenio-etena, bizitza-etena...

Libururik gabeko poeta izan da Eustakio, bizi zela oso olerki gutxi argitaratutakoa. Idazkera herabe, noble eta eleganteduna. Harritu egiten gaitu. Aniztasuna da nagusi hemen. Oso desberdinak diren olerkiak dira hemen bildutakoak: erlijioa, euskara, langileria, aberria... Bere herriaren gaitzak ikusi gabe ezin pasa dituen har horrek heldutako olerkari sufritua eta mina da "Txikia". Bere trajediak erakargarriagoa egiten du pertsonaia.

Ardatza: herria eta euskara

Etengabeko etenen gizontzat dugu Eustakio. Gizontasun-etetik eta barneko erlijiotasun-etetik ez, ordea, jakina.

Gure herrikoaz esan diren gauzak dagoeneko zenbatu ezinak liratekeela genion Itsasondon egin genuen aurkezpenean (liburu, aldizkari eta egunkarietan...). Donostiako aurkezpenean Eñaut Etxamendik zerizkionez, "Txikia" bezalako gizonak ematen diote beste norabide bat Historiari. Eustakio izan zen lehena bere garaiko egoera esplizitatzeko orduan eta poeta sonatuenak bezainbat preziatzen du honen sorkuntza. Gurea bezain gazte den poeta batek, lirika eta trajikotasun horrekin idazten duenean, hor ez dagoela berrikeriak, hor grabea dela, iragan-gaitza, iraungo duela.

Dionisio Amundarainek, zioenez, "Eustakio-aren gizontasuna eta politikotasuna, zer gizon-

modua zen gelditzen da aztertu gabe. Nik ez dut uste hainbeste gauza onik idatzi denik puntu honi buruz. Hemen bai egin beharko litzatekeela sator lana edo galdeketa lan izan izugarria pertsonalki ezagutu zutenen artean". Horiek bildu ezkerre erretratu-gisako miresgarri bat aterako litzatekeelakoan dago Dionisio. Herria eta euskara zituen ardatz gure gizonak eta koherentzia nagusi.

Mistiko "arriskutsu" bat

Benito Amundarain ezagunak aitortu du hemendik aurrera bere lanak ikerketa lanik merezi izango dutela. "Niretzat, terminologia horrek asko esan nahi du, bainan, Eustakio mistiko bat zen (hitz horren mamia batere deskafeinatu gabe), bere esangura guztia erekin. Bere hitzarekin oso koherentea zen mistikoa. Mistiko bat beti da "arriskutsua", besterentzat batez ere, bere buruari eskatzen diona besteei ere eskatzen dielako".

Olerkiok 25 bat urte inguru dituzte dagoeneko. Lastima da: ez ziren ezagutza eman bere garai onenean. Baina estreinatu berriak direla ere, ez dute zahar usairik. "Susa"ko "Iraungo" sailean argitaratu ditugu: gaurkotatun badute eta izango dute gerora. Merezimenduak baidituzte.

Bere olerkari dohaien agerpen bat besterik ez zigen utzi "Txikia" k, guk dakigula. Inguruotako idazle bikainenetakoa da halere. Etorriko al da "Hitz Etena" liburuan aurkeztu dugun saioa sakonduko duen ikerketarik!

Jon Arano

• Mikeleteak

"Album Grafico Descriptibo de Guipuzcoa" liburutik hartu eta moldatua. "Gipuzkoako Mikeleteak", Julian Logendio J.aren eskutik. Gipuzkoako Mikeleteen institutu armatu horrek, izen bat edo besteren batekin, 1.800-10 urte inguruaz gero esistitzen du. Lehen gerra zibilaren aurretik, erakuntza narratsa zuen, gizon gutxi eta bere lana lurraldeko biztanleen segurtasun pertsonala zaintzea zen. Lehen gerra inguruan "Chapel-gorri"ekin parte hartu zuen Isabel II.aren tronuaren defentsan eta harekin baturik geratu zen.

Gorporazio horren historia Bergarako "Hitzarmena"z (Besarkadaz) geroztik egin zen eza-gunago. 1838.ean "Cuerpo de celadores de proteccion y seguridad publica de Guipuzcoa" zelakoa sortu zen, zeinaren lau konpainietatik bi Txapelgorrietatik zetozen eta beste biak D. Carlosen ejerzituarengandik. 400 gizon. "Se dedico exclusivamente a perseguir y extirpar el bandolerismo de que quedo infestado el pais, como secuela necesaria del largo periodo de lucha sostenida sobre su suelo. Su labor fue eficazisima; muy rapidamente fue renaciendo la tranquilidad, y, acalladas las pasiones que la guerra suscito, el orden publico quedo restablecido muy pronto; es indudable que la promulgacion de la ley de 25 de Octubre de 1839, confirmacion de los Fueros, contribuyo no poco, a lograr este resultado", dio Logendio, Mikeleteen Koronel-buruzagiak.

1841.ean Seguran ospaturiko Biltzar Nagusietan erabaki zen "Cuerpo de Celadores" zirelakoan deusezte eta Mikeleteen Gorporazioa sortzea. Mikeleteek, komeni zen eran banaturik Gipuzkoako lurralde osoan ibil ziteze eta ahalik eta lehenen, herri zibilizatuenetan ere falta ez diren, gaizkileak harrapa zitzateela.

1846.ean Mikeleteena deusezte erabaki zuen Erret Agindu batek, nahikoa zirelakoan Gipuzkoan zeuden 106 guardia zibil. Eta nahiz eta 1846.eko Azkoitiako Biltzar Nagusiak ez bat etorri erabaki horrekin, akatatu egin zuten. Hori bai, eskeini zituzten zerbitzuak garrantziz-



Mikeleteak

suak izan zirela eta, gomendioa luzatu zioten Diputazioari: mendizain, kaminero eta halako lanak emateko mikelete-ohiei. Makina bat ataundar eta goierritar izango zen tartean.

Afrikako Kanpainan hartu zuten parte Mikeletek 1859-60 urteetan. 1861-73 bitartean areagotu egin zen guda zibila eta talde hori indartu egin zen. Espainiako Gerra Ministeritzak ordena emanda, "Batallon de Miqueletes voluntarios de Guipuzcoa" sortu zen: 140tik gora hildako, 400dik gora zauritu.

1876.etik aurrera bijilantzia eta helburu administratiboak betetzeko aginduarekin segitzen dute Mikeleteek: kontsumo-zergen bilketa, garrario eta aulki-kaballerien tasak, kontribuzio industrial, patente eta merkataritza-kobaketak. Hiru milioitik gora biltzen zituen zergetan Mikelete-bidez Foru Aldundiak. Gipuzkoako sarriera-aurrekontuen %50tik gora.

1914ko bukaera bitartean, 18 urtez, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialarentzako 120.612.032,40 pzta. jaso zituzten Mikeleteek. Jendetza haundiak espero zituzten herriak mikeleteak bidal zitazela eskatzen zioten Diputazioari. Espainiako Erregeak Donostira etorri ohi zirenean, Miramarreko Jauregiko segurtasunaren ardura Mikeletek zuten.

• Aurrezki Kutxa Probintziala

1895-XI-6an erabaki zuen Aldundi Agurriak Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala sortzea; bere helburua: "aurrezte bultzatzeko eta Gipuzkoan ongi ez zeudenei beren ekonomiak probetxuzkoagoak izan zitezen bitartekoak eskaintzeko", Serapio Mujika ormaiztegiar historialariak dioskunez "Euskalerrriaren Alde"ren 138. zenbakian.

K. ez da enpresa komertziala, baizik eta konfidantzan uzten zaion diruen gordailu eta bere mixioa, enplegu on bat ematea diru horiei. Kutxaren ondarena haunditzeko mirarik ez du izan behar eta, dohainezkoa denez, ezin da hartu merkatal-ekintza bezala. Kutxa sortzean esan zenez, "Lurraldearen aurrezpena dela eta fondoak baldin badaude, erabilpen publiko eta benefizientzia bezala bueltatu behar zaio herriari".

Goierri dagokionez, Kutxak, Zegaman, Beasain, Seguran eta Ordizian zituen bulegoak, Mikeleteen sargentu eta besteren kargupean. Aurreztutakoaren %3a interesak partitzen zituen Kutxak garai hartan eta izugarrizko zozketak egiten zituen, 50.000 pzta.tik gorako sariak eman zituen 1913.ean (baserri berri bat, 30.000pzta.tik gorakoa; zortzi behi eta zezena, e.a.). Kutxari zor zaizkio zenbait eskolen eraikitzea, ur-ekarrerak, zubiak luzatzea, Fraisoroko sehaska-etxea, e.a.

Hona hemen, goierritarrek Kutxan zituzten diruak, 1915.eko abenduaren 15ean:

Beasain:...	372.115,85 pzta.
Zegama:.....	299.668,84 pzta
Segura:.....	387.626,88 pzta.
Ordizia:..	1.353.459,91 pzta.
Tolosa:..	3.345.334,39 pzta.

GOIERRITARRA

HEGOA

TABERNA

GOIERRI KALEA, 12. (ATZEKALDEA)

ORDIZIA

ARANTXA

mertzeria

Joxe Miel Barandiaran Enparantza, 3
Tfnoa: 88 76 15 • ORDIZIA

Arrantzan egin gabe, festetan ondo jateko...

Ordiziako "Zubibi" jatetxea

Abuztuan bi urte egingo ditu ireki zela Ordiziako Tximistaneko zubi ondoko "Zubibi" jatetxeak. Argazkia ikustea besterik ez dago jabetzeko etxe horren dotorezia eta kategoriaz. Barrura sartu zara inoiz? Bada, kanpokoak ere agertzen du nola asetzen diren barruak "Zubibi"n.

Bertako etxeoandrea den Asun Barandiaranek (lehenagoko "Barandiaran" tabernakoak, hain zuzen) dioskunez, jende moeta guttiakoa biltzen da txoko horretara: bikoteak, negozio-bazkariak, kirol ikuskarietara hurbiltzen diren kirolari koadrilak,... denetatik.

Baina dena ere ez da lujoa: koadrila-afariak ere egiten dira maiz, prezioak egokitu egiten baitituzte gazteen poltsikuetara (1.200 pzta.ko ingururekin afaldu daiteke egoki).

Asunek, dioenez, jendeak gehiago eskatzen



du arraia, haragia baino. Eta saltsan baino gehiago eskatzen bide da plantxan edo parrillan eginikoa. Etxeko berezitasunak aipatzen dizkigu: rapea eta kogotea parrillan eta "Zubibi" deritzon legatza. Bere gustokoena eta zerbait akontsejatzekotan, rapea. Postreak, berriez, etxean eginikoak dituzte denak. Eskertzen da hori!

Adibide bat jartzeko, hurrengo karta: Ganbak plantxan, kokotxak errebozatuta, labean eginiko txangurroa, urdaiazpikoa, rapea parrillan, postreak, ardoak eta txanpainak 4.000 pzta. inguruan aterako zaizkizu. Hori bai, ardóetan igo daiteke kontua, segun eta zer edaten den. 2.500etik 5.000 bitartean aukera zabala dago "Zubibi"n. Asteguneko menua, ordea, 800 pzta.n egin daiteke. Ondroso xamar, beraz.

Ordiziako Jaietara arrimatzen diren goierritar nahiz kanpokoek badakite non aurkitu eskaintza zabaleko eta arraietan espezialdutako jatetxerik (gero haragizaleak garela esango dute Beterrietan!); herriko sarrera batean, Gudarien Etorbidea 4.ean. Tel. 888511. On egin janak eta kalterik ez edanak.

Rosa Amundarain

• Kontsumoa

Bidai agentziak eta kontsumitzailearen eskubideak

Badakizu zein eskubide duzun bidaia agentzia batekin tratua egiten duzunean? Agentziak berak agindutakoa ez badu betetzen, badakizu zeintzu diren eman behar dituzun pausuak?

Bidai agentziak eta kontsumitzailearen eskubideak

Badakizu zein eskubide duzun bidaia agentzia batekin tratua egiten duzunean? Agentziak berak agindutakoa ez badu betetzen, badakizu zeintzu diren eman behar dituzun pausuak?

Bidaia eskaintza

Agentzia guztiek eskaini ditzakete zerbitzu solteak, hau da, txartelak, hotelak e.a. gordetzea; bidaia osoak (forfait). Eskaintzok, ondoko zehaztasun hauekin osatuz eman behar dituzte: bidaiaaren nondik norakoa, hotelen kategorია, bidaia egiteko egunak, partaideen kopurua, aukerako ibilaldi eta zerbitzuak, eta heurion prezioak.

Agentziaren kostu eta funtzionamendua.

Agentziak %40a eska dezake seinale gisa eta %15a gestioengatik.

Zerbitzu aldaketa

Zerbitzuak bezeroak onarturiko eskaintzan ezartzen diren baldintza beretsuetan ematera beharturik dago agentzia. Aldaketa egitea ezinbestekoa gertatuko balitz, bezeroa jakin jarri beharko luke eta beronek ikusi beharko du ea onartzen duen ala ez. Onartzen ez badu, berriro itzuliko zaio aurretiaz jarritako dirua.

Aldaketak bidaian zehar sortuko balira, kategorია bereko zerbitzuak eskaintzera beharturik dago agentzia, eta hori ezinezkoa gertatuko balitz, hobeagoko zerbitzua eskaini beharko du.

BIDAIA EZ EGITEA ERABAKITZEN BADUZU, kontutan har ezazu agentziak ondoko hau kobra diezazukeela:

A- Solteko zerbitzuak: Bertan bera uzteak sortarazitako gastuak (denak behar bezala egiaztatutak). Gestioaren portzentia (dena behar bezala egiaztatua).

B- Forfait Bidaia: eskaintza onetsi aurretik, gestioak sortarazitako gastuak. Eskaintza onetsi ondoren, gestioak sortarazitako gastuak; bertan bera uzteak sortarazitako gastuak eta kalte-ordain gisa %15eraino.

C- Behin kontratua gauzatu ondoren, aurrerago aipatutakoaz gain, zigor gisa ondoko hau kobra dezakete: ezezkoa 10 egun lehenago eman ezker %5a; ezezkoa 10 eta 3 egun aurreragoko epearen barruan eman ezker, % 15a eta 48 ordu lehenago eman ezker, %25a. Ezezkoa eman beharrean bezero aldaketa egin ezker, agentziak %5a kobra dezake gastuengatik.

ERREKLAMAZIO-ESKABIDEAK hila-betea igaro aurretik egingo dira Turismo Ordezkaritzan. Zalantzarik izanez gero, dei ezazu hurbilen duzun Kontsumitzaileen Informaziorako Udala Bulegora.

Jai-giroan elkarturik!

Egun hauetan,
alaitasuna, poza, jolasa, ilusioak...
gainezka dauzkagu.


Herriaren zati bat garenez
eta horrela sentitzen garelako,
Herriarengandik hurbil egon nahi
dugu.

Horregatik bada, egun hauetan
Jai-giroko Elkartasuna!

**Euskadiko
Kutxa**



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA**



- Soluziorik
hoberena
- Plastikoko
injekzio eta
erreziklaia
- Enbase eta
enbalaiak



- Muntaia eta
mekanizatuak
- Loragintza
- Garbiketa
industrialak
- Publizitate
zuzena

GUREAK TAILER BABESTUAK, S. A.



GUREAK

Jauregi Auzoa z/g.

HERNANI (Gipuzkoa)

Tfnak.: 55 72 00 - 55 72 04 - 55 72 08

Faxa: 55 72 23

1191 Posta Kutxatila

20080 **DONOSTIA**